



ARGIA



ZEROCALCARE

Belaunaldi prekarioaren komikigilea



**Eskola jantokiak
gurasoen bizkar?**

**22 | ELIKADURA
IKASTETXEETAN**



**100 egunetik
gora gose greban**

32 | KURDISTAN



**Inudeak
biziraupenerako
zaintza**

34 | EKONOMIA

1919 IRUÑEA, KAPUTXINOEN KOMENTUA **JATORRIRA BIDAIA**

📍 IRUÑEA 🏰 OTSAILAK 23 LARUNBATA

EGITARUA

11:00etan elkartu
Kaputxinoen Komentuan
Errotazar 42

Iruñean barna ibilaldia

12:30 Alde Zaharrean
GINKANA tematikoa:
euskara eta batasun nazionala

14:30 Zaldiko Maldiko
elkartean oturuntza*

*

Eguerdiko janaldian zenbat
izango garen jakiteko,
eman izena lehenbailehen:
argiak100urte@argia.eus

bizi nahi duen herria


100 URTE TXIKITIK ERAGITEN

🐦 #ARGIAK100urte

T. 616 79 62 84 E. argiak100urte@argia.eus

WWW.ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA

BABESLEAK:



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | GAIZKI ERRANKA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIA

AZALEKO MUNTAIA: DANI BLANCO

Iritziak

- 17 | DAVID BOU
- 18 | BEA SALABERRI
- 19 | MIKEL IRIZAR
- 19 | BEÑAT SARASOLA
- 20 | IÑAKI BARCENA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 38 | BIZI BARATZEA
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 47 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: PABLO AZKONA
- 54 | BERANDUEGI



34 | INUDEAK

Besteren haurrak zaintzen zituzten emakume hauen fenomeno konplexua aztertu du Amaia Rodriguezek.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL Hegoaldeko Mato Grosso, Bolsonaroren gaza brasildarra

Pello Zubiria Kamino

12 | LOREA ARGARATE "Roomba xurgagailuak zure etxeko planoa eskaneatzen omen du eta lkeari saldu"

Danele Sarriugarte Mochales

22 | HEZKUNTZA Eskola jantokiak noren ardura?

Malen Aldalur Azpillaga

27 | PSIKOLOGIZAZIOA Guaren eta niaren arteko oreka askatzaileen bila

Z. Oleaga

30 | EUSKARAREN HISTORIA Artziniega 1771: Euskarazko lehen interpretearen zantzuak

Arseniega bloga

32 | NAZIOARTEA Gose grebalari kurduak justizia gose

Lander Arbelaiz Mitxelena

42 | KULTURA | ZEROCALCARE "Gizarte zibila itzali egin da"

Ane Irazabal Elkorobarrutia

46 | KULTURA | UBIK ETA EUSKAL BIKOIZLEAK Azpikontatazioa kulturaren kaltean

Gorka Bereziartua Mitxelena

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitu Eizaguirre,
Gorka Bereziartua, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi,
Mikel Garcia, Onintza Irureta,
Pello Zubiria, Urko Apaolaza,
Xabier Letona
Diseinua
Maitane Gartzandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde
Salmenta
Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua,
Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde
Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Ametzagaila taldeko kidea da
Argia honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

Argiako edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNDUA)



1.000 ARRAZOI

ARGAZKIA | EKINKLIK KOLEKTIBOA
TESTUA | AXIER LOPEZ

1.000 lagun aitortza eta erreparaziorik gabe. 1.000 aulki huts, nafar torturatu bakoitzeko bana, paratu ditu Nafarroako Torturatuaren Sareak Iruñeko Gazteluko Plazan. Tortura ofizialki ikertu ez den azken legegintzaldia hau izan dadin. Pako Etxeberriaren lantaldeak irekitako bideari jarraipena eman nahi diote Nafarroan. Isilpeko sufrimendu kolektiboa aitortu eta sendatzeko bidean ezinbesteko pausoa da. Baina espero dezagun EAEn ez bezala erantzukizunak kitatzeari ere ekiteko ausardia izatea Nafarroan. Tamalez, Ertzaintzak torturatu dituen 336 herritarak, justiziarako bide baino gehiago, apalak dekoratzeko txosten bilakatu baititu Eusko Jaurlaritzak. Txakurrak ez du txakurra jaten dio erdarazko esaera zaharrak.





MILAKA PERTSONA
ATERA DIRA KALERA
DONOSTIAN, ESATEKO
AUTODETERMINAZIOA EZ
DELA DELITU, ETA PRESO
POLITIKO KATALANEKIN
ELKARTASUNEZ.
HEMEN IDATZI DUT,
BADAIEZPADA EZ BADUZUE
ERREGIMENAREN
ALBISTEGIETAN IKUSTEN

@Estel_fb22



ESKERRIK ASKO GURE
ESKU DAGOKO KIDEOI.
GAUR DONOSTIAN
SENTITU DUGUN
ELKARTASUNA ITZELA
IZAN DA. ELKARREKIN
LORTUKO DUGU

@ANCEuskalHerria



ORIOI JUNQUERAS-EK
ARGI ESAN DU EPAIKETAN,
BOZKATZEA EZ DA DELITUA.
DENON ESKUBIDEAK DAUDE
JOKOAN. ELKARTASUNA
ETA MOBILIZAZIOA
EZINBESTEKOAK DIRA

@GureEskuDagoU



BERRIRO EGIN DUGU.
SENEKAK NERONI ESAN
ZION: "ZURE BOTEREA NIRE
BELDURREAN DATZA, ETA
BELDUR NAIZENEZ GERO,
EZ DUZU BOTERERIK". ETA
BELDURRA GALDU DUGU
DAGOENOKO!

@trontxotar



@MPUGDEMONTIC

Auzipetu katalanei elkartasuna Donostian

ARGIA @argia

Donostiako Kataluniako plazatik milaka herritar atera ziren igande eguerdian "Konponbidea. Demokracia. Llibertat" goiburupean eta Boulebarderaino egindako ibilbidea horiz bete zuten. Gure Esku Dagok antolatu zuen manifestazioa. Kataluniako independentista auziperatuei elkartasuna helarazteaz gain, bildutako milaka lagunek herrien erabakitze eskubidea ere aldarrikatu zuten. Herritar ugari antolatzaileek banatutako aterki eta puxika horiz jantzi zuten ibilaldia. Martxari ekin aurretik Gure Esku Dagoko Angel Oiarbidek hedabideei esan zien epaiketa ez zela bakarrik auzipetuen eta independendista katalanen aurkakoa, epaiketa erabaki eskubidearen aurkakoa zela funtsean: "Bozkatzea ezin da delitua izan, demokrazia sendo batean, erabakitze eskubidea eta autodeterminazioa ezin dira delituak izan".

Manifestazioaren amaieran Carles Puigdemont lehendakari katalanaren arreba Montse Puigdemontek hitz egin zuen eta eskerrak eman zizkien bertaratutakoei, kaleak eskubide zibilen alde bete zituztelako. Hasi behar ez zuen epaiketa batean aurrean gaudela adierazi zuen eta egoera baliatuko dutela euren ahotsaz epaiketaren aurka ahalik eta ozenen egiteko.

Ekitaldiaren amaieran Angel Oiarbidek hartu zuen hitza eta azpimarratu zuen erabakitze eskubidea mundu justuago bat egiteko oinarria dela "bai Eskozian, bai Quebecen, Ipar Irlandan edo Katalunian". Herrien arteko eta euskaldunen arteko elkarlanera deitu zuen, horrela erabaki eskubideari jarriko zaizkion trabak gainditu ahal izango direlako. Manifestazioan euskal alderdi eta sindikatu abertzaleetako ordezkari ugari ikusi ziren, EH Bildu, EAJ, ELA edo LABekoak esate baterako. ●

GAIZKI ERRANKA

Gure baxua zein ote



SANTI LEONÉ
@ororostorm

Noizbehinka, Nafarroan ale gehien saltzen dituen egunkariak erreportaje bat eskaintzen die Opusek gurean dituen ikastetxeei, Unibertsitateari edo Klinikari: zer-nolako emaitza onak lortzen dituzten ikasleek; puntako tresna bat ekarri dutela ez dakit zein eritasun inon baino hobeki artatzeko; zenbat jenderi ematen dieten lana erakunde horiek eta, oro har, zeinen etekin ekonomiko handiak ekartzen dizkioten Nafarroari. Argudio teknikoak izaten dira nagusi kazetaritzatik baino publizitatetik gehiago duten erreportaje horietan, eta, horrela, Opusi propaganda egiteko egiazko motiboak –ideologia erlijioso ultrakontserbadorea hedatzen duen erakunde batekin adostasuna– gibelean gelditzen dira, ikusezin. Halere, ustez teknikoak diren argudioak aski ideologikoak ere badira, lanpostuak sortzen dituen oro ez baita nahitaez ona edo onargarria.

Euskarak ere lana ematen dio hainbat jenderi, baina hori ez da sekulan nafar egunkari zaharrenarendako aintzat hartzeko argudioa izan. Aurrematrikulazioa dela-eta, joan den larunbatean azalera zer ekarri eta lerro-buru hau: “Eskaerak goiti egin du itunpeko eskoletan, eta beheiti, D ereduari”. Lehengo lepotik burua, *Diario de Navarra*; iaz, hau izan zen albistea: “Nafar familiek berriz ere PAI hautatzen dute”. Datu objektiboen azpitik –betiere objektiboak badira–, askatasunaren gaia; alegia, nafarrek, aukeran, D eredu publikoa ez bertzelako ereduak nahiago dituzte; alegia, itunpeko irakaskuntzak askatasuna bermatzen du, are gehiago erdaraz bada.

Datuen musikaren azpitik, askatasunaren baxua aditzen da, hain zuzen ere erregimen zaharraren prentsari sendotasuna ematen diona. Gu maiz borrokan aritu gara datu teknikoaren inguruan, baina ez dakit gure baxua zein den, zein nahi dugun izatea, benetan finkatu dugun. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



ADUR

“ESKER ONA AZALDU NAHI DIZUET
JERUSALEM OKUPATUKO LANETAN PARTE HARTZEARI
UKO EGITEAGATIK”

SAEB EREKAT, PALESTINAREN ASKAPENERAKO ERAKUNDEKO ORDEZKARIA

CAF-eko langile batzordeak Jerusalemgo tranbiaren linea berria eraikitzeke lehia uzteko eskatu zion enpresari. Esker ona adierazten duen gutuna iritsi zaie orain. “Palestinarrak esker oneko izango gara beti, ulertzen dugulako zein zaila den era honetako erabakiak hartzea, norberaren lanari eragiten dioten heinean”. CAFeko langileen jokabidea “eredu” dela dio Erekaite gutunean. “Espero dugu zuek erakutsi duzun duintasun, irmotasun eta etikarekin jokatu dutela” Europako langileek. **2019/02/14**



Elkarrizketa soziala, zeinekin?



JUAN MARI ARREGI

Eusko Jaurlaritzak sortutako Elkarrizketa Sozialerako Mahaia joan den astean bildu da, ELA eta LABek osatzen duten gehiengo sindikalik gabe. Bilera izan zen egoitzaren atarian elkarretaratu ziren LABeko ordezkariak, mahai hori “iruzurra” dela salatzeko, “gehiengo sindikala baztertu eta soilik gutxiengoarekin bilatzen baititu akordioak”. ELAk, bere aldetik, salatu du Urkulluren exekutiboak herri borondatea eta demokrazia parte-hartzailea mespretxatzen dituela, Herri Ekimen Legegileak eztabaidatzeari uko eginez, pobrezia eta bazterkeriaren kontrako Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartarena kasu; sindikatuaren aburuz, mahai horrekin CCOO eta UGT erabiltzen ditu “bere politika antisoziala eta jokabide antidemokratikoa makillatzeko”.

Sindikatu abertzaleen salaketak oinarri sendoak dauzka. Diotenez, Eusko Jaurlaritzak ez du haiekin hitz egin mahaia sortu aurretik. Gobernuak politika neoliberalak ezarri ditu patronalarekin adostuta. Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren dekretuari dagokionez, “joko arau antidemokratikoak inposatzen ditu, sindikalgintzaren eremuko gehiengoak errespetatu gabe”. Akordioak sinatzeko, nahikoa da sindikatu bakar batek babestea, hau da, gutxiengoak. Esaterako, UGTren ordezkariak %11 izatera iristen ez den arren, akordio bati balioa eman diezaioke bere babesarekin.

Logikoa eta koherentea da euskal sindikatu nagusiak Elkarrizketa Sozialerako Mahaian ez egotea. Eusko Jaurlaritzaren arduragabekeria oso handia da, politika horrekin sindikatu abertzale aldarrikatzaileenei ez-ikusia egiten baitie. CCOOk eta UGTk ere badute erantzukizunik, politika hori onartzen baitute. ●



INAKI AGIRRE/IRITULOKO HITZA

Zigorrean oinarrituko ez den justizia baten alde

LANDER ARBELAITZ MITXELENA @larbelaitz

Joan den asteazkenean ezohiko epaiketa bat izan da Donostian, Gipuzkoako Lurralde Auzitegian. Akusatuen aulkian bi ertzain, legez kanpoko bi atxiloketa egin izana egotzita. Akusatzaileak berriz, orain hiru udaberri Donostiako Gipuzkoa plazan erraustegiaren aurka abiatutako kanpaldian parte hartu zuten bi kide. 2016ko ekainaren 2an atxilotu zituzten, euren burua ez identifikatzeagatik. Bi agenteen gainean Damoklesen ezpata: bost urteko espetxe zigorra eta seiko inhabilitazio eskaera.

Kontraesana agerikoa da: bestelako mundu baten alde egiteko prest zeuden herritarrek beste bi pertsona bidaliko al dituzte espetxera? Egoerarekin ez daude eroso ertzainak noski, ezta akusatzaileak ere. Baina nola lortu barkamen eskaera bat, erreparazioa, erasotzaileak lanketa egitea edo komunitatearentzat positiboan planteatutako zerbait?

Bost orduko epaiketan alde bakoitzak bere jarrera defendatu du –atxiloketak legez kanpokoak izan zirela gazteek; legezkoak izan zirela ertzainek–. Sorpresa amaieran heldu da, gazteen abokatuaren azken hitzartzean. “Espetxea gertutik ezagutzen dugu eta ez dugu uste inor espetxera joanda ezer konponduko dugunik”, bota du. Bi ertzainetako baten aurka karguak erretiratu dituzte, deklarazioan adierazi duelako atxiloketen erabakia ez zuela berak hartu. Bigarrenari, gutxieneko zigor eskaera egin diote, eta epaimahaiari eskatu, zigorra bertan behera uzteko “komunitatearentzat onuragarriak diren ondorengo hiru gauzak egiten baditu”: kanpaldiak iraun bitartean Gipuzkoa Zutikek sareratutako bideoak ikustea “ikas dezan mugimendu horizontalak posible direla”, Pedro Bañosen *El Dominio Mundial* liburua irakurtzea “poliziaren eta indar militarren rola hausnartzeko”, eta Lurralde Askeak ateratako *Ongi bizitzeko 100 konpromiso* liburua irakurtzea “bestelako gizarte bat eraikitzen laguntzeko”.

Erdaraz *justice réparatrice* edo *justicia reparativa* deitua, funtsean, apurtutako legearen irakurketa zurrunean eta horrek dakartzan zigorretan baino, biktimaren beharretan jartzen ditu indarrak justizia konpontzaileak.

Epaietarekin amaitzeko, fiskalak eta ertzainen abokatuak hauen absoluzioa eskatu dute. Are gehiago, azken hau haserre mintzatu da akusazioaren planteamendurekin. Errugabeak direla adierazi du eta beste alde bi agenteak epaitegira eramate hutsarekin pozik dagoela iruditzen zaiola.

Epaitegien izaera eta hauetatik mundua aldatzen saiatzea konplexua da. ●



ERNAI BILBO

EDERTASUN-KANONA ETA PREKARIETATEA

BILBO. “Eskapatu eskaparatik!” lelopean, Ernaiko zenbait kidek Bilboko On Diego Lopez de Haro kale nagusian dauden arropa-multinazionalen aurrean desfilatu dute, arropa erantzita. Ekintzaren bidez, enpresa erraldoi hauek ezartzen dituzten kanon estetikoak salatu nahi izan dituzte. “Neska gazteen bizitzak prekarizatzen” dituztela ere kritikatu dute.

EKONOMIA SOZIALA



3 aldiz gehiago ematen dute banku etikoek, banku tradizionalak baino. 2007-2017 epealdiko datuak hartu ditu aintzat Europa osoan egindako azterketak.

750.000 milioi euro gastatu dituzte Europako gobernuak dozenaka banku erreskatatzen. Aldiz, ez dute xentimo bakar bat ere erabili 23 banku etikoentzat.

Arteak Ireki plataforma sortu dute

ARGIA @argia

Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren EAEko lehenengo erregelamendua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak otsailaren 5eko Gobernu Bileran. Kulturaren eta komertzio txikien kontrako erasotzat ulertuta, Arteak Ireki plataforma sortu dute EAEn.

ARAUA

Erregelamenduak EAEko udalerri guztietako lokal eta tabernei eragiten die, eskaintza kulturalari dago-kionez mugak ezarriz: aurrerantzean hilabetean ikuskizun bat antolatu ahal izango dute, urtean hamabi gehienez. Erregelamenduak ez du salbuespenik onartzen, eta adibidez, herriko jaietan ere muga berbera ezarriko da. Elizetako zuzeneko ere eragiten die, abesbatzen emanaldiak mugatuz.

ALDARRIKAPENA

“Kultura-espazioak izeneko kategoria berria sortzearen alde gaude. Hau funtsezko urratsa dela uste dugu aforro txikiko eta izaera erabat kulturalako espazioak babesteko, beti ere auzotarrekin elkarbizitza bermatuz. Formatu txikiko musikaren eta zuzeneko arteen aldeko marko normatibo berria behar dugu”, dio plataformak, publiko egin duen idatzian. Manifestuarekin bat egitera deitu eta sinadura bilketari bide eman diote.



ERRAUSKETA. Zabalgarbik azken urteotan 24 milioi euro jaso ditu ustezko “energia berdez” argindarra sortzeko diru-laguntzetan. Zaborrak erretzea energia berriztagarritzat ezin hartzeaz gain, Zabalgarbik sortutako argindarraren jatorria %70an gas naturala erretzeaz dago.



ARRAZAKERIA. Donostiako autobus geltokian pasaportea eskatzen diete atzerritarrei estatu barruan nahiz Schengen eremuko beste herrialde batera bidaiatzeko. Harrera Sareak eta SOS Arrazakeriak salatu dutenez, “hemen ez dago halako araudirik, autobus konpainiek hartutako erabakia da”.



BERRI TXARRAK. Taldeak prentsaurrekoa eman du, iragarritako etenaldi mugagabea azaltzeko. Gorka Urbizu abeslariaren hitzetan, “jotzeaz ez naiz aspertu, baina ez dut nire burua indartsu ikusten taldearen hurrengo urrats artistikoa pentsatu eta sortzeko”. Dena den, itzultzeko atea irekita utzi dute.

HEGOALDEKO MATO GROSSO, BOLSONAROREN GAZA BRASILDARRA

Mato Grosso do Sul estatuak irudikatzen du Jair Bolsonaro ultraeskuindarrak Brasilen ezarri nahi duen nazio asmoa. Soja eta okelaren esportatzaile nagusi izaki, beste inon baino bortitzagoak dira hemen lurraren erabileragatik borroka, zeinetan talka egiten duten alde batetik milaka urtez bertan bizi izan diren jatorrizko biztanleek eta kolonialismoak ekarritako beltz eta nekazari txiroek, eta bestetik agro-industriarekin aberasten diren lur harrapatzaile handiek.

PELLO ZUBIRIA KAMINO @pellozubiria

Brasilgo hego-mendebaldean, Hegoaldeko Mato Grosso estatuak 2,3 milioi biztanle dauzka 18 Euskal Herri adinako lur azalean (358.000 km²). Bere klima tropikalarekin eta sabana gisako landarediarekin, esportazioari begira antolatuta dauka jarduera ekonomiko guztia, bai nekazaritza (soja, arto, kotoi, arroz, azukre kainabera... gehi haragitarako aziendak) eta bai meatzaritza (burdina, manganesoa, karea...).

“Hegoaldeko Mato Grosso da Bolsonarok amesten duen Brasilen hezur-mamitza. Mato Grosso da, bestela esanda, lehendakari berriarekin brasildarroi datorriguna”. Oiara Bonilla antropologoa-ren hitzak dira, *Terrestres* aldizkarian plazaratu duen “Posibleen sasoia Brasilen ultra-eskuinaren aurrean” analisisan. Hemen laburbilduko dugu.

“Zentimetro bakar bat lur gehiago ez indigenei!”, oihukatu zuen urte hasieran Mato Grossoko Dourados hirian Jair Bolsonarok, inguruko lur jabe handiekin bilera egin aurretik. Horrela berretsi zuen hauteskunde kanpaina osoan agindutakoa: lehendakartzara iritsitakoan, indigenen lurak eta *quilombolak* desegingo zituela, bertan bizi direnekin batera: “Ez dute ezer egiten, umeak egiteko ere ez dute balio eta sekulako dirutza kostatzen zaizkio Estatuari”. [*Quilombola*: antzinako esklabo beltz ihes eginek antolatutako etxaldea, auzolanean kudeatua, gaur komunitate indigenatzat jotzen dena].

Douradoseko hitzaldian –dio Bonillak– Bolsonarok aurreratu zuen bere

agintaldiak lurraren kudeaketan eta ingurumenarenean egingo duena: etniaz eta kulturaz ezberdinak direnekiko mespretxuz, azken hiru hamarkadotan Brasilek eskubide sozialetan aurrera eginiko guztia atzera botatzen ahalegingo dela, gauza bera ingurumenaz eta jatorrizko herrien eskubideez Brasilek sinatutako nazioarteko itunetan.

Douradosen konplizitatezko mezua bidali zien ere agro-industriaren ordezkariak diren diputatu *ruralista* deituei. Hauek osatzen dute *Bancada BBB* deitzen dioten gehiengo nagusia Brasiliako legebiltzarrean: *Bala*, *Boi* (idia) eta *Biblia* ordezkatzan dituztenak, militarren, lur-jabe handien eta kristau ebanjelikoaren interesen zaindaria.

Mato Grosson dago *agrobusiness* brasildararren bihotzetako bat, ingurumena eta nekazari txikien sarea suntsituz esportazioari begira antolatutako soro izugarri zabaletan oinarritua. Horretarako lur eremu handiak kontzentratu dituzte esku gutxi batzuetan, indigenei kenduta askotan, basoak eraitsita besteetan, ongari kimikoz eta pestizidaz lepo, ibai, erreka eta lurpeko urak kutsatuz eta ehizakiak bezala arrainak desagerraraziz. Amazonia Real elkarteak kalkulatu du jendeen %3 dagoela pestizidaz zuzenean kutsatua, asko haur eta nerabeak.

Lurra lapurtzeko handiek beste inon baino bortitzago jotzen dute hemen. Azken 15 urteotan Brasilen hil dituzten lider indigenen erdiak hemen kalitu di-

tuzte, Conselho Indigenista Missionário ren kalkuluetan. XIX. mendean amerindiarrei sistemaz lurak kendu eta kolono zuriei eman zitzaizkien. Hasieran mate belarra hazteko, gero abelazkuntzarako. Erreserba txiki batzuetara mugatu zituzten Guarani eta Kaiowa jendeak. Laster zeuden erreserbok jendez gainezka, alkoholismo eta suizidio tasa handiak nozituz.

GUTXIENGOAK: EDO MAKURTU EDO SUNTSITU

1970eko hamarkadan hasi ziren Guarani eta Kaiowa jendeak beren antzinako lurretan berriro sartzen, *retomada* direlakoak antolatuz. Estatuak beren jabegotzat aitortzea nahi duten alorrok gehienetan sasiak hartutako eremuak dira, bide bazterretakoak edo etxalde handien hesien albokoak; indiarrek okupatu eta egokitzen dituzte manioka, artoa eta sendabelarrak hazteko. Badute antzarik landa lurraren erreforma aldarrikatuz MSTko lurrik gabeko baserritarrek egiten dituzten okupazioekin.

Azken aldian, ordea, etxalde handien jabeak beren eskuz hasi dira okupatzailerioi aurre egiten. 2013an enkante bat antolatu eta bildutako diruarekin *retomaden* okupazioak zantpatzeko milizia pribatua antolatu zuten. Guarani, Kaiowa eta Teren etnietako baserritar txiroen kontrako eraso armatuak ugaritu dira. 2016ko udan, Caarapó herrian, miliziek kanpaleku bat inguratu eta gazte bat hil zuten, beste asko zaurituz.

CAARAPO, MATTO GROSSO, 2016

LUR JABE HANDIEN SIKARIOEK
 CLODIOI SOUZA GAZTEA HIL
 ZUTEN TIROKA, KIOWA JENDEAK
 BERRESKURATUTAKO LURRETATIK
 ALDE EGIN ZEZAN.



Eraso hura Ascuri etniako jendeak *Retomada Te'ykue* dokumentalean bilduta dauka. Filmaren hasieran entzun daiteke Bolsonaro, orduan diputatua, iragartzen 2019an lehendakari baldin bada lur jabeek tiroka bidali ahalko dituztela okupatzaileak.

Baina milizia pribatuez gain, Estatuaren poliziak ere parte hartu du indigena txiroen zanaketan, beste zenbait bideok frogatu dutenez: helikopktero eta guzti iritsitako poliziak etxolak bezala baratze eta tresneriak suntsitu eta jendeak kanporatzen, jendeari fusilez tiroka... Irudiok oroitarazten dituzte, neurri txikian, Rio de Janeiroko faveletan polizia eta militarrek burututako erasoak, jomugan gehienbat gazte beltzak dauzkatena.

Indigenak, *quilombolak*, antigoaleko bizimodua daramatenei –latexa biltzen

duen seringueiroak, intxaurrak biltzen dituzten castnheiroak...– edo lur gabeko baserritarrei eraso, Bolsonaro bereztat aldarrikatzen du gizarte kreolea, XIX. mendetik Hego Amerikako estatu-nazioen oinarria dena, afroamerikarren eta amerindiarren eragina lausotu eta *populazioa* zuritzen ahaleginduz.

Elite kreolearen eredu ekonomiko eta sozialak beti behar izan du eskulan merke eta eskubiderik gabea; gaur ere bai, Brasilgo manufaktura industrian oraindik dagoen esklabo lanak erakusten duen moduan. PT Langileen Alderdiaren gobernua, dio Bonilla antropologoak, saiatu den arren gizarte sistema justuago bat ezartzen aberastasuna banatzen duen Estatuaren logikan, ez du lortu ihes egitea Estatuaren aparatuaren atzaparretatik eta Brasilgo elite ekonomiko eta sozialaren interesen aurrean makurtu

da. Eliteek, ordea, PTren esperimentua bukatutzat eman zuten.

Bolsonarok behin eta berriro esana da: “Gehiengoentzako izango da Brasil. Gutxiengoak, edo egokitu daitezela edo desagertu!”. Beste antropologo batek, Eduardo Viveiros de Castrok hone-lu ulertu ditu haren hitzak: “Gerra bat dago gaur Brasilgo herri indioen kontra, eta Estatuak lotsarik gabe laguntzen die erasotzaileei, nahiz eta bere betebeharra litzatekeen indigenak eta beste herriak zaintzea eufemismoz *ruralistak* deitu arren benetan burgesia agro-industrialaren denaren eta nazioarteko kapitalaren erasotik. Baina hor zegoen hirietako klase ertainaren atal faxista ere: lehengo hauteskundeetan nahiko oharkabea pasatzen zen atal faxista hori erabakigarria izan da Bolsonaro agintera eramateko”. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
 T. 943 420 624
 info@zinkunegioptika.com
 www.zinkunegioptika.com

f v

feel
think
make





ROOMBA XURGAGAILUAK ZURE ETXEKO PLANOA ESKANEATZEN OMEN DU ETA IKEARI SALDU



Lerro paraleloak, elkarrengandik gertu-gertu joan arren, ez dira inoiz elkar gurutzatzen, eta lerro elkarzutek, berriz, behin ukitzen dute elkar, eta betiko banatzen dira gero. Lorea Argaratek, ordea, ezinezko geometrikoa lortu du. Bere bizitza ardazten duten lerro paraleloak batu ditu, bere hiru pasioak uztartu: musika, teknologia eta hezkuntza.

TESTUA | **DANELE SARRIUGARTE MOCHALES**
ARGAZKIAK | **DANI BLANCO**

Has gaitezen musikarekin.

Musika beti izan da nire bizitzako adar sendoena, nire bizitza musikari begira egon da, hortik sortu dira beste hainbat proiektu. Umetan klarinetea jotzen hastea erabaki nuen, ez dakit zergatik. Gurasoek esan didatenez, halako batean esan nien klarinetea jo nahi nuela. Musika eskolan hasi nintzen, eta oso ondo dago, baina nik egur gehiago nahi nuen. Orduan, kontserbatorioan sartu nintzen. Han sekulako egurra zegoen, baina ezin zenuen ezer erabaki, eta musika eskolan nire esku zegoen guztia.

Zer ikasi, zer ez ikasi...

Hori da. Kontserbatorioan, ikasturte hasieran esan zidaten hiru obra jo behar nituela. Nik ez nituen horiek jo nahi, baina nik nahi nituenak ez zeuden curriculumean. Orduan, tratu bat egin nuen irakaslearekin, eta esan zidan berak eman ahal zidala nik nahi nuena, baina ezingo zidala gainditutzat eman.

Eta?

Horrela ibili nintzen bi urtez, kontserbatoriotik bota ninduten arte. Kalera joan nintzen, baina, han ibili nintzen bitar-

tean oso gustura ibili nintzen. Nirekin karrera atera dutenek titulua daukate, baina ez dute inoiz jo, ez dute berriro instrumentua erabili, eta nik, oster, ez daukat titulurik baina asko jo dut: garai horretan Sopelako bandan nengoen (han lortu nituen nire lehen soldatak), gero E Gene izeneko pop rock musika talde batean ibili nintzen... Klarineteak asko eman dit.

Klarinetearen ondorioz hasi zinen fisika ikasten, ezta?

Bai, txoriburu bat nintzenez, klarineteak

Lorea Argarate Zubia

BILBO, 1990



Musikaria, teknologoa eta hezitzailea. Fisika ikasten hasi zen, baina nahiago zuenez gauzak egitea, gauzei buruz hitz egitea baino, fisika utzi eta telekomunikazio ingeniari-tza ikasi zuen. Hantxe topatu zuen bere lekua. Deustuko unibertsitatean ibili zen hiru urtez, pedagogia eta teknologia lantzen dituen ikerketa-talde batean, eta, gaur egun, Tazebaez berrikuntza kooperatibako kidea da. Hezkuntza eta teknologia uztartzen dituzten proiektuak garatzen dihardu, adibidez, *Sortzearen abentura* proiektua egin dute Bilboko Udalarekin batera, Bilboko eskoletan emateko. Proiektu horren bidez, *design thinking* metodologiari buruzkoak irakasten dizkiete haurrei.

egin nahi nituen, eta horretarako jakin behar nuen akustika, eta akustika jakiteko egin behar nuen fisika.

Baina ez zintuen bete.

Fisika beti gustatu izan zait, ez bakarrik akustika. Baina lehenengo urteak beti dira oso generikoak, ematen da matematika pila bat, kimika pila bat... fisika ia gutxiengoa zen. Beraz, lehenengo urteetan pixka bat gogorra egin zitzaidan. Aurrrera egin ahala, beste ikasgai batzuekin hasi nintzen, eta gustura aritu nintzen. Kontua zen, ordea, ezin nuela inon aplikatu. Konturatu nintzen jakingo nuela hitz egiten denari buruz, baina ez nuela jakingo ezer egiten, eta nik beharra dut gauzak egiteko, ez hitz egiten aritzeko, aspertu egiten nau.

Eta utzi egin zenuen.

Bai, hala ere, utzi aurretik, elektronika deskubritu nuen. Eta ikusi nuen zein merkea zen, ikusi nuen egin nitzakeela sintetizadore pila bat, mikrofonoak... Klarinete bat egiteko diru pila bat behar nuen, eta bat-batean oso prezio baxuan egin nezakeen sintetizadore bat, klarinete bat ematen zuena!

Hain justu ere, musika elektronikoa- ren bidez ezagutuko zaitu jende askok, Tea Party DJ's taldeko kide gisa.

Hori izan zen hurrengo pausoa. Elektronika deskubritzen hasi nintzen, pedalak egiten, sintetizadoreak tuneatzen ... Orduan hasi zitzaidan musika elektronikoaren mundua pixka bat gehiago gustatzen, zeren ordura arte nahiko purua nintzen, iruditzen zitzaidan ordenagailuarekin egindako musika ez zela musika, baina estereotipo horiek guztiak hautsi nituen eta hasi zitzaidan benetan gustatzen. Zortea eduki nuen gainera, zeren Eva Gutierrez topatu nuen bidean, nirekin Las Tea Partyn ibili dena, eta Evarekin batera aritu naiz ez dakit zenbat urte.

Orain atsedeen hartzen ari zarete, ezta?

Bai, luzatu egin dugu atsedenaldia gainera. Lehenengo aldiz Soraluzen jo genuen oholtza baten gainean, 2010ean, eta 2019an gaude. Bitarte horretan ez genuen inoiz oporrik hartu, komatxo

artean. Oso pozik gaude zeren eduki dugu aukera Las Tea Partys proiektuaren bidez asko ikasteko, autonomoak izan gara, fakturak eta horrelako gauzak egiten ikasi dugu, egon gara DJ moduan Bilboko bi diskoteka onenetan, eta hor ikasi dugu nola antolatu gaueko ordu horiek, zelan eragiten dizun. Bestalde, jaialdietan ere ibili gara: Euskal Herrian jo dugu mila jaitan, eta hemendik kanpo ere ibili gara eta esperientzia hori, alde batetik, surrealista da eta barregura handia sortzen digu, eta, bestetik, pila bat ikasi dugu, eginez.

Baina...

Baina atsedenaldia behar genuen, eta oso gustura gaude. Egon izan gara musika jartzen elkarrekin, baina ez Las Tea Partysen izenpean daukazu ardura horrekin, zeren azkenean ardura handia izatera heldu da eta psikologikoki ere exigentzia handia dauka. Eta are gehiago nortasun digitalean. Denbora guztian konektatuta egotea, online egotea, aktualizatzea... Gaur egungo artistek musika egiteaz gain mila gauza gehiago egin behar dituzte, eta hori zen agian gehien nekatzen gintuena. Orain, adibidez, sare sozial guztiak gelditu dauzkagu eta guretzat benetako lasaitasuna izan da, eta gure bizitzan egunerokotasunean ere igarri dugu pixka bat. Ikusiko dugu nola bueltatu, horri buruz momentuz ez dugu asko pentsatu. Erabaki genuen apur batean geratzea, gure proiektu bat zelako eta gustura egin nahi genuelako. Beste gauza batzuk daude inposatutakoak, beraz guk gure buruari ez diogu inposatuko gauza gehiago.

**Orain dela 40 bat urte,
teknologia eta zientzietako
karreretan neskak ia
%44 ziren eta orain, berriz,
%11. Ez goaz aurrera,
baizik eta atzera**

Nortasun digitala aipatu duzu. Oker ez banaiz, datuen kudeaketari buruzko master bat egin zenuen. Nolako da egoera?

Gaur egun, datuen salmenta berehalakoa da. Gure datuekin asko trafikatzten da. Zerbait bilatu duzu orri batean, eta hurrengoan iragarki bat agertzen zaizu bilatu duzunarekin lotura duena. Hori gertatzen da bilatzaileak saldu dituelako zure datuak. Eta hori da orain arte ezagutu duguna, hau da, nik bilatzen dut eta agertzen zait. Baina bilatu duzu,

feel
think
make



akzio bat egin duzu. Orain, ordea, mugikorraren bidez egiten dute, irudiekin, mikroekin. Mugikorra oso dispositibo inteligentea da, eta sentsore eta gauza asko dauzka, eta guk, aplikazioak jaistean baiezkoa ematen diogu baldintza pila bati, irakurri gabe, eta baime-na ematen dugu gauza horiek guztiak hartzeko.

Orain gutxi entzun dut *roomba* robot xurgagailuak zure etxeko plano eskaneatzen duela eta plano hori saltzen diola jende pila bati, bai Googleri bai Ikeari, eta horregatik Ikeak bidaltzen dizu iragarki bat justu zure neurrira datorren altzari batena, zeren badaki non ahal duzun ipini, zeren *roombak* erregristatu du. Nork pentsatuko luke *roomba* ari dela zure etxeko planoaren erregistratzen eta bidaltzen, eta badakiela noiz jarri duzun altzari berri bat eta non? Ba hala da. Datuen kudeaketaren mundua oso ezezaguna da jendearentzat, ez daukagu hezkuntzarik gai horietan, eta gainera oso berria da guztia. Beraz, uste dut beharrezkoa dela dibulgazio minimo bat egitea, ondo kudeatu behar ditugu gure datu digitalak, eta pribatasuna zaintzen hasi behar dugu.

Nola?

Txikikeria da, baina *webcam*-a beti eroan behar da estalia. Eta gero, esango nuke pentsatu edo aukeratu egin behar dela, beste gauza batzuk egiten ditugunean bezala. Elikaduraren arloan adibidez hartzen dugu kontuan jasangarritasuna, eta pintxo bat jatera zoazenean, igual okelarik gabekoa hartzen duzu, edo behintzat badakizu aukeratu ahal duzula. Publikatzeko orduan berdin: adibidez, ez publikatu argazki bat zure etxetik oso gertu badago, edo ez jarri kokapena. Hala, makinak jakingo du, baina zure kontaktu guztiek ez. Azkenean, mundu digitala da mundu fisikoa bezalakoa, eta jendeak ez du plazara atera eta egin duen guztia oihukatzen, eta mundu digitaleko plazan, ordea, hor gabilta edozer gauza zabaltzen. Norberak erabaki behar du zein den lokala, zein den plaza eta zein den gela, zeren mundu digitalean gure gela ere eduki behar dugu, Osakidetzako datuak kudeatzeko, egiten ditugun transferentziak kudeatzeko... Gero aukeratu behar dugu plaza bat, izango da Facebook edo Google bera, eta gero lagunekin egoteko tokia, Whatsapp adibidez. Baina jakin gela, plaza eta lagunartea direla.

Ipini iragazkia eta hasi erabakitzen zein forotan esan nahi dituzun gauza batzuk edo non erakutsi nahi dituzun zure kontu guztiak eta non ez.

Kode irekiaren eta teknologia librearen aldekoa zaitugu. Uste dut nahiko garbi ulertzen dela zergatik den positiboa teknologia irekia izatea, baina batzuetan badirudi aukera horiek, eskura egonda ere, oso urruti daudela herritar "xeheengandik".

Zer iruditzen zaizu?

Ez daukagu gure tresnak sortzeko eta egiteko ohiturarik. Latinoamerikan, adibidez, gauza pila bat sortzen dute, egunerokotasunerako aplikazio pila bat, eta hemen, aldiz, oso kontsumistak gara, egiten duguna da jaso, erosi eta kito. Are gehiago teknologiaren munduan, beldurrak eta mugak ditugu-eta. Arropa erostean, adibidez, kontuan hartzen dugu nondik datorren; teknologiari dagokionez oster, edozer gauza erosten dugu, ez zaigu inporta nork egin duen, zer gertatu den hori egin ahal izateko... Edonola ere, puntu.eus fundazioak *Kaixo mundua* proiektua egin du, eta aipatu nahi dut, oso pozik nago eta. Proiektu horren bitartez eskoletan landu-



ko dira gai hauek guztiak, eta guk parte hartu dugu edukia egiten. Bideo formatuan dago, eta edonork ikus dezake. Pozik nago, alde batetik, puntu.eus fundazioak nahi duelako euskal gizarte sortzaile bat, eta ez kontsumitzailea soilik. Interneten gauza bera gertatzen da, asko kontsumitzen dugu eta ez dugu euskaraz sortzen, eta proiektu horretan balore jarriko da, eta irakatsiko dira gaitasun batzuk gazteak sortzaile bihurtzeko, eta nortasun digitala landuko da. Lehen esan moduan, teknologia eta internet oso azkar sartu dira, sare sozialak oso azkar sartu dira, eta datuen kudeaketa eta pribatutasuna asko aldatu dira. Beraz, diruari buruz edo hizkuntza bat ikasten dugun bezala, nortasun digitalari buruz irakatsi behar dugu. Oso pozik nago Euskal Herrian ere

horrelako proiektuak sortzen ari direlako.

Teknologia eta hezkuntza uztartzen dituen beste proiektu batean ere ibili zara: *Inspira*. Zer da?

Deustun nengoenean sortu genuen proiektua da. Ez dakit ba ote dakizuen, baina teknologia eta zientzietako karreteran neska kopurua oso-oso baxua da, eta jaisten ari da, asko. Orain dela 40 bat urte, ia %44 ziren neskak eta orain, berriz, %11. Ez goaz aurrera, baizik eta atzera. Joera areagotzen ari da, industria askotan gizonezkoak bakarrik daude, eta oso arriskutsua da, zeren munduan ezin dira irtenbideak aurkitu bakarrik gizonen ikuspuntutik. Beraz, sei orduko ikastaroa da *Inspira*. Emakume teknologoei ematen dute eta bertan lantzen dira es-

tereotipoak, lanbideak, erreferenteak... Izan ere, emakume zientzialarien erreferenteak orain dela ehun urtekoak dira.

Marie Curie.

Hori da. Eta oso ondo dago, baina bizitza eman zuen. Emakume batek zientzian puntan ibiltzeko bizitza eman behar du, izan behar du onena, irabazi behar du Nobel bat... Inspiraren bidez nahi izan ditugu erreferente horiek lurreratu, erakutsi hurbilagoko batzuk, gauza "arruntago" batzuk.

Adibidez?

Youtubeko zuzendari exekutiboa emakumea da.

Pozik zaude proiektuaren emaitzarekin?

Oso pozik nago. Hirugarren urtez egin da aurten, eta aurten, lehenengoz, mutilentzako ere egin dute bat. Orain arte banatu egiten ziren ikasleak, eta neskek eurek eskatu zuten hala mantentzeko, zeren denak elkarrekin daudenean rolak aldatzen dira, eta banatzean, neskak ahaldunduzko dira pila bat, harremanak oso-oso ezberdinak dira, eta eskatu zuten mesedez horri eusteko. Baina neskak lanean ari ziren bitartean, mutilak edozer gauza egiten aritzen ziren, eta hori ere ez genuen nahi, eta mutilek ere badute zer landu: haiek ere estereotipoak daukate eta oso markaturik daude. Orduan, aurten, haien zatia ere ari dira bide bat eskaintzen.

Bestalde, proiektua Deustun hasi zen orain dela hiru urte, baina gaur egun Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egiten da, eta orain Madril eta Katalunian hasiko da. Telefonikak Espainian ematen duen sari bat ere irabazi du. Niretzat ikaragarria da, zeren nik sortu nuen edukia eta itzela da jakitea hortik zehar dabilela eta ondo funtzionatzen duela. ●



tradebi@tradebi.com



Iritziak

Estatuari epaiketa



DAVID BOU
LA DIRECTA-KO KAZETARIA
@dvdbou

Otsailaren 12az geroztik hamaika pertsona eserita daude Espainia-ko Auzitegi Gorenaren akusatuena aulkian. Kataluniako autodeterminazio erreferenduma epaitzen ari dira, 2017ko urriaren 1ean egin zena. Epaituak independentismoaren kausa orokorraren goi-muturraren adierazleak baino ez dira. Horiei hauexek gehitu behar baitzaizkie: zortzi erbesteratu, bere udalerrian konfinatuta dagoen aktibista bat, 1.318 zauritu, 136 atxilotu, 144 webgune itxita, hamazazpi irakasle ikuskatuta eta hiru milioi euro fidantzetan emanda. 2017ko irailetik 2019ko urtarrilera bitartean Estatuak zabalduetako errepresioaren ondorioak dira. Herritarren mobilizazioek aurrea hartu zioten Estatuari eta honek inizatiba berreskuratu nahi du neurri horien bitartez.

Egia esan, Estatuaren erantzun bortitzak erabat jota laga du politika instituzional katalana. Alderdien kupulekiko sosegurik eza handituz doa, oso nabaria independentziaren aldeko militanteen artean. Hori dela eta, azpimarragarria da azken hilabetetan jendartean loratu den antolatze gaitasuna. Horren lekuko, bost manifestaldi jendetsuak eta milaka parte-hartzaileak, errepresaliatuen aldeko laguntza eskerga, baita herrialdeko zoko guztietan egonkortutako ehundaka CDRak (*Comitès de Defensa de la República*). Beste ekimen anitz tarteko, preso politikoei 160.000 gutun jaso dituzte.

Hala eta guztiz ere, errealtatea egos-

Azkenaldion, hainbat katalanen azalpen asko entzun eta irakurri dugu, errudun sentimendua azaleratu dute, euskal gatazkari buruz zabaldu ziren bertsio ofizialak sinetsi zituztelako txintik atera gabe

korra da, eta bidea gero eta hertsia goa. Adibidez, Auzitegi Gorenak zirkinik egin gabe onartu ditu Estatuaren Abokatu-tzak eta Fiskaltzak proposatu dituen 256 lekukotasunak eta horietako %85 poliziarenak dira. Halaber, Bartzelona-ko hautesleketako istiluen aurkako bi polizia daude inputatuta: Informazio Brigadako komisario burua, mugimendu sozial katalanen aurkako borroeroa –Jordi izengoitiak ezagutzen dute, 90eko hamarkadan herritarrak derrigortzen zituen poliziaren infiltratu izatera eta tortura salaketak ditu oraindik– eta Diego Pérez de los Cobos Guardia Zibileko koronela, prozesatua eta euskal aktibista bati egindako torturetatik salbuetsia.

Puntu honetara iritsita, galdera gailentzen da: ez al zineten ohartu aurrean zenuten etsaiaren tamainaz? Erantzuna,

nagusiki: “Ez!”. Azkenaldion, hainbat katalanen azalpen asko entzun eta irakurri dugu, euren errudun sentimendua azaleratu dute, euskal gatazkari buruz zabaldu ziren bertsio ofizialak sinetsi zituztelako txintik atera gabe. 18/98 sumarioa heldu zait burura, eta ulertzen dut zuek haserretzea, baina, ulertu diezadazue, horixe da berri onena. Hobe berandu, inoiz ez baino. Azken buruan, ezertan aurrera egin badugu, izan da ulertzea egungo markoan ez dagoela demokraziarik.

Bataila hasi besterik ez da egin eta sententzia diktatuko denean, Estatuak senperrenak eginen ditu epaiaren aurrean izanen diren “erreakzioak” amartatzeko, aspaldidanik lantzen ari diren erreakzioak. Haien txarrena eta gure onena etortzeko daude oraindik ere. Begirada luzez ari denak, autodeterminazioa gizartea eraldatzeko baliabide bezala lantzen ari denak, iritsi garen garaira iritsita, sumatzen du zein den askatasuna lortze bidean ordainaraziko diguten prezioa. Alabaina, etorkizuna gure esku dago.

Azkenik, Omnium Culturaleko presidente Jordi Cuixarten etxe-aurrealdean dagoen argazki ondoko esaldia dut gogoan: “Zigor-gela txikia da baina loaldia mugagabea”. At Versaris taldearen *No fear* (*Ez beldurrik izan*) kantatik hartua da. Honekin bukatzen dut: “Ez badigute ametsik egiten uzten, ez diegu lorik egiten utziko”. Beti legez, zuen laguntza behar dugu. ●

Kultur Zaldaina



BEA SALABERRI
IRAKASLEA
@beatxo



PAULA ESTÉVEZ

Frantziako Kultura Ministerioak bost departamendutan frogatuko du *Pass Culture* dispositiboa: 18 urteko 10.000 herritarrei zuzendua zaie, bakoitzak 500 euroko dirutza birtuala baluke urtebetean erabiltzeko, kultura kontsumitzeko eta aplikazio baten bidez balia lezake erakusketa, ikusgarri eta zinema sarreratan, liburu eta diskotan, ikastarotan. Praktika kulturalen ezagutzeko balioko du, deskubritzeko eta erabakitzeko zer maite den ala ez, baina betiere ezagutu ondoan. Erraza baita gutxiestea ezagutu ezean, eta bestalde nekeza helteza karioa edo ezezaguna denean.

Konkretuki, baiki, frantses kulturarako bidea da. Ez dira dispositiboan sartuko Amazon, Netflix, Spotify edo Deezer-en zerbitzuak eta, tamalez, ez dakigu ea *Pass*-ak balioko duenez herritako ekoizpen kulturalen kasuan, ez eta, geroan luzatuko eta orokortuko balitz, gurea barne litzatekeenez? Diot, *Kalaportu* ikusgarria, *Oreina* filma, *Aztihitza* liburua, Izaki Gardenak-en azken diskoa eskuragarriagoak jarriko lizkieke? Bagad kontzertu bat, bretoiara klase zenbait edo Armorikako aberastasun naturala ezagutzeko parada emanen lieke? Dudarik gabe antolatzaile-babesle oniritziaren esku, betiere.

Pena zait ez dadin hemen berean oraindik sortu izan antzeko dispositiborik euskal kulturaren ezagutzeko. Badaikit hegoaldean nonbait, noizbait, egon direla “kultur bono” eta antzekoak. Baina ene inguruan holakorik ez da.

Jakina, 18 urtetan gure gazte gehienek enbeia dute edozein gauzetarako salbu “euskal” zerbaitetara joateko: aspertu ditugu militantziaz, talo txandez, euskaraz egin beharraz, bideratu ditugu dantza ikastarotara, pilotara eta Pirritx eta Porrotxen ikusgarrietara urteetan zehar –beti ere aitamen indarrei eta moltsei esker–. Errebeldia puntua normala da. Aldi berean, adin kritikoa da, identitatea finkatzeko, ondoko urteetan baita ageriko ea euskal herritar gisa ikusten dutenez haien burua ala ez.

Halaber, kanpotik etorri jendeen kasuan edo urteak hemen iragan baina euskal kulturaz zipitzik ez dakitenen kasuan, ezin egokiagoa litzateke hauei parada eskaintzea gure urtean zeharreko ekimenak, gure sortzaileak, gure ohi-turak ezagutzeko.

Harago esperientziaz dakit kultur transmisioan berdeak garela. Ene irakasle bizipenetatik hasteko, badaikit hizkuntzaren transmisioan doi-doi heldetzen garenean, kultur edukienean

badugula zer hobetu. Izan ere, ez da harrigarria ez ezagutzea Mikel Laboaz aparte kantari bakar bat, ez jakitea hiru mendiren izenik, ez jakitea hemengo idazleak zertaz ari diren.

Funtsezkoa da, etorkizunerako, eskuragarri izan daitezen euskal ekoizpenak. Dirutza eman behar bada, hala bedi, eta hauta dezatela zer deskubritu, erabaki zer den eder, interesgarri, sar daitezela nahi duten saltsan, baina betiere ezagutuz. Ezagutuz: hori baita arazoa.

Lekuko kulturaren aldeko politikaren ekimen indartsua litzateke, zinezko engaiamenduaren seinalea, bertako sorkuntzen promozioa egitea, gure gazteei, ikasleei, herritarrei bide hori zabaltzea, *Scène Nationale*-n ekitaldietatik eta Frédéric Beigbeder-en hitzaldietatik at.

Eta Kultur Zaldaina dei genezake.

Pass, bono, txartel baino hobe, sarbide erraztuaren zentzua baitaukate. Sar eta har. Eta parti. Zaldainak norabait heltzeko eta integratzeko aukera leharke. Gurera etortzeko, ezagutzeko, maitatzeko uraren gaineko bidexka meharra. Uharte soil bakartua ez ginatke orduan, heltzeko eta, nahi bada, geratzeko zubixkarekin geundeke, behingoz, gure kulturaren ezagutza oinarritzko-eskubide aitortu artean. ●

Ikaskuntzaren funtzioa



MIKEL IRIZAR
EUSKALGILEA
@mirizarintxaus

Bere mendeurrena zela-eta, Eusko Ikaskuntza (EI) erakundeak bi urte luzeko prozesua burutu zuen 2018an, unibertsitateetan, erakunde publikoetan eta gizartean dauden milatik gora aditu eta ariturekin. Helburua zen Euskal Herriaren etorkizunerako egitasmo bat zirriborratzea, 20/25 urteko perspektibarekin.

Prozesuaren emaitza Oñatin gizarteratu zen iazko azaroan, eta Euskal Herriko hiru erakunde nagusietako agintari gorrenek eman zioten babesa aurkeztutako egitasmo partekatuari. Ez dago une honek maila bereko definizioa eta legitimitatea biltzen dituen herri proiekturik (Ikus <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/kongresua/dokumentazioa/eik-53/>).

Mendeurrenako kongresuan, Elk bere burua eskaini zuen duela ehun urte “sorreran eman zitzaion eginkizuna molde berriarekin betetzeko: herri garapenerako begirada luzea lantzea, ezagutza eta berrikuntza erabilita, lankidetzaren estuan erakunde publikoekin, eragile politiko eta sozialekin, eta herritarrekin, politika publikoen eta gizarte dinamiken mesedetan”.

Kongresura iristeko prozesuan Elk lortu duen partaidetza bikainak erakusten du lidergo hori aitortzen zaiola, eta sinesgarria dela erakundea biziberritzeko egin den apustua. Orain eskura dau-

ka aliantza sistema oso bat eraikitzea, egitasmo partekatua garatzen lankide izan ditzakeen erakunde eta eragileekin, gizarte antolatuak eskatu ahala erantzunak garai eta molde egokietan eman ahal izateko.

Garrantzitsua da Elren funtzio berri-tu honen onarpena erabat barneratzea erakundearen eta eragilearen partetik, funtzio banaketa logiko baten baitan: Elri dagokio epe luzeko markoak eraikitzea, eta haietatik abiatuta ekarpenak egitea exekuzioan dabilzanein, hauen egitekoan sartu gabe. Zenbat kasutan jardun-esparruen arteko muga lausoa izango da, baina ezinbestekoa da funtzio banaketa argitzea konfiantza eraikitzeko, hori gabe ezin baita lankidetzaren iraunkorrik sortu.

Maila politiko-administratiboan joera izan badaiteke egungo hiru esparruak finkatzea eta horietatik abiatzea ekimen politikoak (EAEko autogobernu ponziazaren, esaterako), joera horren arriskua sahisteko litzateke Euskal Herri mailako herrigintza dinamika indartsu bat eraikita; hau da, Elk ondutako egitasmo partekatua garatuz eta gauzatze bidean jarriz, behar diren lankidetzaren publiko eta sozialak ehunduta. Kongresuan abiatu den dinamika indartzea eta egonkortzea da Euskal Herria eraikitzeko apusturik eraginkorrena. ●

Estatista xaloak



BEÑAT SARASOLA
IDAZLEA
@bsarasola

Azken urteotan, Espainiako Estatuko lehia politikoan –Euskal Erdikoan bezalaxe–, boladan da pragmatismoaren aldarria. Trantsizioaren hausturatik erreformarako bidea egin zuten saldoari egungo lau xentimoko populistak gehitu zaizkie, Iñigo Errejon buru dutela. Alabaina, egoera aski absurdua da, Espainiako panorama politikoan ezer ez baitago xaloagoa pragmatista eta errealista izatea baino.

Pragmatista eta estatista autodenominatu askok aipatu izan dute maiz independentzia desira zilegi izanik ere, gertakari burugorrek erakusten du-

tela ez dagoela proiektu politiko hori baino gauza zentzugabeagorik. Egungo mundu globalizatuaren independentzia absurdua dela, eta gainera, estatuen Europak sekula ez duela utziko barneko lurralde bat zatikatzen. Argudio pisuzkoak dirudite, baina berriki Kataluniako auzian errelatorearen karietara sortutako espektakuluak ere beste zerbait erakusten digu, burugogorki horrek ere; hots, independentziaren proiektua ameskeria hutsa den neurri berean dela *wishful thinking*-aren emaitza Espainia autonomikoaren erreforma demokratizatzaile eta askatzailearen posibilitatea. ●

Klima ez, sistema aldatu



IÑAKI BARCENA
EKOLOGISTAK MARTXAN
TALDEKO KIDEA

Change the change. Lerroburu hori jarri diote Donostian antolatutako Klima Aldaketaren Nazioarteko Konferentziari. Hiru egunetan, bertoko eta nazioarteko adituak elkartuko dira "historia arrakastatsuen eta "negozio-eredu berriak" aurkezteko eta klima-alaketaren ondorioen aurrean gizarte gisa ditugun erronkez eztabaidatzeko. Programan, hizlari nagusien artean, Iñaki Arriola, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburua, Jose Ignacio Asensio, Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumeneko diputatua, Ignacio S. Galán, Iberdrolako presidentea eta Gonzalo Sáenz de Miera, Iberdrolako Klima Aldaketako zuzendaria, Ernesto Gasco, Donostiako alkateordea eta Teresa Ribera, Trantsizio Ekologikorako Espainiako ministroa. Sarrera arrunta 180 euro eta 100 euro ikasle eta langabetuentzat. Ez dut dudarik orri asko beteko dutela komunikabide *mainstream*-etan baina nire buruari galdetzen diot, pertsonaia horiek eta ordezkatzan duten enpresa eta interesak klima arazoaren parte dira ala soluziobidearena?

Iberduero kanpora! Hala kantatu du urte luzeetan euskal mugimendu antinuklear eta ekologistak Lemoizko aferan.

Iberdrolako zuzendaria eta AHT, erraustegia, superportuak, Coke, errepide eta azpiegitura berriak, instituzio politiko eta enpresetatik defenditzen dituztenak, ez daude justizia klimatikoarekin lerraturik, sistemaren parte dira

Al Gorek, Nobel saridunak, aldiz, Bilboko Guggenheimean euskaldunok zorte handia genuela esan zigun. Aldaketa klimatikoari ekiteko Iberdrola eta Gamesa tresna oso baliotsuak baitira, bere ustez. Gamesa duela gutxi Siemens alemaniarri saldu diote eta nire aburuz, Iberdrola dugu arazoaren parte (nagusia) eta ez soluzioarena. Espainiako Estatuaren CO₂ko isurketen %1aren erantzulea da. Beste multinazional batzuek gehiago kutsatzen dute, noski, Endesak

%10, Gas Natural, EDP eta Repsol-Petronor hirukoteak %3 bakoitzak. Cepsa, Cemex, ArcelorMittal, Viesgo eta Cementos Portlandekin batera, hamar enpresa horiek heren bat sortzen dute (%28). Erantzukizun oso nabarmena, aldaketa klimatikoan.

Klima ez, sistema aldatu! Hau da justizia klimatikoaren leloa mundu osoan. Kapitalismoaren eredu soziala gainditzeko eredu energetikoa aldatu beharra dago eta trantsizio energetiko hori egitekotan aldeko eta kontrako indarrak eta eragileak borrokan gaude. Iberdrolako zuzendaria eta AHT, erraustegia, superportuak, Coke, errepide eta azpiegitura berriak (Arabak, Barroneko urtegia, azken alea dugu), instituzio politiko eta enpresetatik defenditzen dituztenak, ez daude justizia klimatikoarekin lerraturik, sistemaren parte dira. Behetik sortzen diren aldaketak, jende asko biltzen dutenak lotu behar ditugu eta bidaia luze horretan instituzio eta enpresen munduan aliatuak egon badaude, zorionez. *Change the change* moduko ekimenek ez dute ezer aldatzen/ekartzen... Sistema bera irauteko egiten dira. Zoritzarrez! ●



Eman izena!
Lehiaketan parte hartzeko
epea **otsailaren 24a**
arte egongo da zabalik

SARIAK

Bernat Vidal artistaren garaikurra
200 euroko diru txakea
ARGIA kolaboratzeko aukera





KATEGORIAK Kultura / Gizartea / Zientzia / Aisia / Politika / Teknologia

blogetan.eus

Ø200

SLOW · KAFETEGIA

BERTAKOA · GARAIKOA · EKOLOGIKOA
GEUK PRESTATUA · ERANTZUKIZUN SOZIALA



Altuna baserria · Arrillaga Txiki baserria · Basatxerri · Behieko Sabekoetxea · Biok gazta
Bodegas Lezaun · Carlos Petrina · El Alcaraván · Ertxieko · Euskal Herria Esnea
Euskal Untxia · Goi Eko Haragia · Karabeleko · Goiti okindegia · Gumendi
Larreta Esnekiak · Lur Lan · Lurrarte · Mahala · Nabarreko · Orexa gazta
Pikunieta baserria · The Loaf · Tolosako Merkatua · Urrullo agroaldea · Zalmendi

ORDUTEGIA | Astelehenetik ostiralera | KAFETEGIA 07:00-17:00 | JATETXEA 12:30-15:20

Hernani, Gipuzkoa | 943 265 022 | www.diametro200.com

ESKOLA JANTOKIAK NOREN ARDURA?

Sukaldeak errekuperatu, elikadura egokia bermatu, balio hezitzaileak transmititu. Asko dira hezkuntzako eragileek jantokietako zerbitzuak hobetzeko dituzten eskariak. Ez daude konforme catering enpresa handiek kudeatutako orain arteko ereduarekin, baina ezta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak urtarrilean egindako proposamenarekin ere: 2019-2020 ikasturtetik aurrera, hala nahi duten EAEko guraso elkarteek aukera izango dute ikastetxeko jantoki zerbitzua zuzenean kudeatzeko.

TESTUA | MALEN ALDALUR AZPILLAGA @malenaldalur

2000. urtean abiatu zuten orain arte martxan egon den eskoletako jantoki kudeaketa ereduak. Garai horietan ikastetxe gehienek ez zuten jantoki zerbitzurik eskaintzen. Hori dela eta, jantoki zerbitzua ahalik eta ikastetxe gehienetara iristea zen helburua. Hogeitazirener ondoren hezkuntza eremuko eragile ugari jartzen dute zalantzan catering enpresa handien bidez funtzionatzaren duen ereduak, eta behin eta berriz eskatu diote aldaketa Eusko Jaurlaritzari. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak bultzatuta, jarraipen batzorde bat abiatu zuten 2017ko abenduan, euren artean proposamenak adostu eta Hezkuntza Sailari helaraziz. Orain, “zur eta lur” geratu dira Hezkuntza Sailak “aldebakarez” hartutako erabakiarekin.

“Informazio oso gutxi daukagu. Esaterako, dirulaguntza deialdiek ez dute ziurtasunik ematen, eta ez dakigu dirulaguntza zenbatekoa izango den”, nabarmendu

du Lurdes Imaz EHIGE guraso elkartearen koordinatzaileak. Tentuz begiratzen diote etorri daitekeenari: “Gestio guztia guraso elkartearen esku geratuko litzateke, eta ez zaigu egokia iruditzen. Jantokia zerbitzu publiko bat da, beraz, Eusko Jaurlaritzak dagokion ardura hartu beharko luke”.

Gogor kritikatu du proposamena Pello Igeregi ELAko kideak ere: “Gure ustez Eusko Jaurlaritzaren asmoa eskola jantokiaren kudeaketa alternatiboek porrot egitea da. Horregatik ezarri du ardura guztia guraso elkartearen gainean, berak inolako laguntza eta baliabiderik ezarri gabe”. Gaineratu du, Eusko Jaurlaritzak badakiela –proba pilotuak egin dituelako– horrelako planteamendu bat neketsua eta konplexua dela: “Gurasoei ardura guztia emanik bere asmoa gertuko jaki osasuntsuetan oinarritutako eskola jantoki ereduak pikturara bidaltzea da”.

CATERING SISTEMATIK KANPO

Dena den, bada jantokiaren kudeaketa osoa guraso elkartearen esku uzteari onurarik ikusten dionik ere. Ikastetxeetako jantokietan beraien seme-alabei ematen zaien elikaduraren kalitateaz arduraturik dauden Durangaldeko hainbat ikastetxetako gurasoek sortutako egitasmoa da Berton Bertokoa. Urteak daramatzate eskualdeko jantokietan sukalde propioak edukitzeko beharra aldarrikatzen eta bertako elikagaiak sustatzen dituen zerbitzu propioa eraikitzen. Orain arte “alegalitatean” egon direla salatu dute eta Eusko Jaurlaritzaren proposamen honek “nolabaiteko bide bat” ireki die la uste dute: “Badira urte batzuk EAEko hainbat eskola gabiltzala jantokiaren sistema eredu ofizialetik at, eta horiei gehitu behar zaizkie azken urteetako proiektu pilotuak. Iruditzen zaigu aukera berri honen bidez, behintzat, dirula-





PLANTOA. JOAN DEN EKAINEAN, FRONTOIAN "PLANTOA" EGIN ZUTEN BERTON BERTOKOA EKIMENEO KIDEEK: "FROGATU DUGU CATERING BIDEZKO SISTEMATIK KANPO POSIBLE DELA GURE HAURREI ELIKADURA OSASUNGARRIA EMATEA"

guntzak jasotzeko aukera izango dugu-la, eta alegalak izateri utziko diogula". Alde horretatik "begi onez" ikusi dute Jaurlaritzaren proposamena: "Eskola hauek frogatu dute gure eredia eraginkorra dela. Frogatuta gelditu da catering bidezko sistematik kanpo, eta gurasoentzat inongo ekonomia kostu gehigarririk gabe, posible dela gure haurrei elikadura osasungarria ematea". Hori dela eta, argi dute Jaurlaritzako arduradunek onartu behar izan dutela beraiek planteatutako ereduak alternatibak dituela.

Hainbat hutsune ere ikusi dizkiote Jaurlaritzaren proposamenari, garbi baitute eskola jantokien kudeaketa osoa ezin dela guraso elkartearen esku utzi: "Guraso elkartearen osaketa aldakorra da eta beraz, haien ondoriozko erabakiek zalantzan jar dezakete jantokien kudeaketak eskatzen duen egonkortasuna". Gainera, uste dute zaintza zein sukal-

daritza zerbitzuek administrazioaren ardurapean egon beharko luketela.

LAU PROIEKTU PILOTU HEZKUNTZA PUBLIKOAN


Eusko Jaurlaritzak abian jarritako lau proiektu pilotuetako bat da Markina-Xemeingo Bekobenta eskola. 2016an jarri zuten abian egitasmoa eta orain kezkatuta daude Hezkuntza Sailak egindako proposamenarekin: "Hordagoa izan da, ez dute horrelako proiektuek aurrera egitea nahi, eta hordagoek balio dute mahai jo-koetan, baina hemen gure haurren elikaduraz ari gara". Zuriñe Egia Bekobentako guraso eta jantoki batzordeko koordinatzaileak gogoratu du mahai sektorialean aritu direla Eusko Jaurlaritzarekin hitz egiten eta uste du orain "beraien hitzei jaramonik egin gabe eta aldebakarrez" hartu duela erabakia administrazioak.

Abian jarritako eredu pilotuarekin

oso gustura daudela azpimarratu du Egiak: "Kostu ekonomiko gehigarririk gabe gure haurrei kalitatezko elikagaiak eskaintzen dizkiegu". Baina Eusko Jaurlaritzaren proposamena entzun ostean beldur dira: "Beldurtuta gaude, ez dakigu proba pilotuaren ostean zer gertatuko den. Dagoeneko hurrengo ikasturteko menua prestatzen eta elikagaiak lortzen hasi beharko ginatke, baina ez dakigu zer gertatuko den gurea moduko ereduarekin eta paralizatuta gaude". Uste du proposamen hau "bere burua zuritzeko modu bat" izan dela Jaurlaritzarentzat.

JATEN ERE IKASI DAITEKE

Gaur egungo ereduarekin jantoki zerbitzua hezkuntza komunitatearen barruan txertatzea "ia ezinezkoa" litzatekeela diote. Izan ere, catering enpresa handiek sukalde industrialetan pres-



tatutako janaria eskoletan banatu besterik ez dute egiten; baina, gaineratu dute, Eusko Jaurlaritzak proposatzen duen ereduarekin “ezinezkoa” litzatekeela. Eta hezkuntzako eragile gehienak bat datoz: jantoki zerbitzua hezkuntza komunitatearen barruan egon beharko litzateke eta eskola jantokietan lanean diharduten pertsonen izaera hezitzailea aitortu behar zaie. “Uste dugu beharrezkoa dela zentroko proiektu hezitzaileetan eskolako jantokia sartzea, duen eduki hezitzailea azalduz, eta proiektuaren gainerakoarekin koherentzia mantenduz”, dio Berton Bertokoa egitasmoak. Eskola jantokiak eta haurren otorduak haurren heziketaren parte dira eta horrek isla zuzena izan beharko luke curriculumean: “Ezin dira haurraren hezkuntza eta jatorduak gai berezi gisa tratatu”.

ELA eta STEILAS sindikatuko kideek ere garbi dute. “Jantokiak ikastetxearen

planaren barruan egon behar du, gune hezitzailea baita eta hainbat gai jorratzeko aukera ematen du: besteak beste, ikasleen zaintza eta auto-zaintza, elikadura osasuntsua eta jasagarria, eta bertako janaria”, azpimarratu du Ana Perez STEILASeko kideak. ELAko Pello Igeregik ere ildo berean hitz egin du: “Gure ustez jatekoa hezkuntzaren parte da, batetik gure seme-alabei elikatze-ko ohitura osasuntsuak barneratzeko aukera delako eta, bestetik, ingurunea zaintzeko elikadura subiranotasuna oso elementu garrantzitsua delako eta balio hau umeei transmititzea ezinbestekoa iruditzen zaigulako etorkizunean bizigarria den planeta batean bizitzeko aukera izan dezaten”.

Lurdes Imazek Katalunia jarri du adibide: “Katalunian arlo pedagogikoa oso landuta dute. Kontuan hartzen dute, esaterako, jantokiko langileen erdia gizonezkoak izatea, horrela estereotipoak hausteko”.

LAN BALDINTZAK KOLOKAN

Jantokien kudeaketa osoa guraso elkarrengan uzteak hainbat ondorio ekar ditzake jantokietako zaintzaile eta zerbitzarien lan baldintzetan ere. Horrekin kezkatuta daude sindikatuak. “Gai honek argi erakutsi du Eusko Jaurlaritzari langileak bost axola zaizkiola”, dio Igeregik. Salatu du ez direla aipatu ere egiten eredu aldaketak izan ditzakeen ondorioak eta gogorarazi du bestelako eredu batzuetan langileen lan eskubideak kaltetu dituztela: “Gure ustez jantokia proiektu pedagogikoetan barneratu behar da, horretarako lanean arituko diren langileen lan baldintzak egokiak izan behar dira eta ezin da mar txan jarri gaur egun lanean dauden langileak kaleratuz”. Perezen esanetan ere, tentuz ibili behar da: “Momentu honetan zehaztasun falta handia dago, baina argi dugu pertsonalaren kudeaketa ezin dela familien ardurapean geratu”. Proposamen hau hezkuntza publikoaren azpikontratazioan eta pribatizazioan beste urrats bat dela dio, langileak “baterkerian” uzten dituen.

Bestalde, lanaren balio hezitzaileak lan baldintzetan eragin zuzena izan de-

zake: “Langileen formazioa eta lan baldintzak funtsezkoak dira, jatekoa zerbitzatzeaz gain balio horiek eta beste batzuk transmititzea beren ardura zuzena izango baita”, azaldu du Igeregik. Dena den, uste du beste eredu baterako trantsizioa egitekotan egungo langileek lanean jarraitzeko bermeak izan beharko lituzketela: “Horretarako trantsizio prozesu bat diseinatu beharko litzateke. Proba pilotu batzuk egin dira eskola batzuetan, baina sarri langileen lan baldintzak kontuan hartu gabe”.

Jantokiak zerbitzu publikoak direla aldarrikatzen dute behin eta berriro. EHIGeko bozeramaile Imazek nabarmendu du jantokiak ezinbestean publikoa behar duela izan, eta beraz, langileen kontratazioa Jaurlaritzaren ardurapean geratu behar dela. Berton Bertoko egitasmoko kideak ere bat datoz horretan eta uste dute administrazioaren egitekoa dela,

esaterako, jantokietako langileei formakuntza eskaintzea; besteak beste, nutrizioan edo elikagaien jatorrian.

Bekobenta eskolaren kasuan langile batzuk Jaurlaritzak kontratatzen ditu eta beste batzuk guraso elkarrekin: “Gure kasuan sukaldariak administrazio publikoak kontratatzen ditu eta guk zaintzaileak

azpikontratatu ditugu beste enpresa baten bitartez”, argitu du Zuriñe Egiak. Kontratazioen ardura guztia guraso elkarrengan uzteak langileen lan baldintzetan eragina izango lukeela azpimarratu du.

Azpikontratazioaren ondorioekin nazkatuta, otsailaren 26rako grebara deitu dituzte eskola jantokietako enpresa pribatuak langileak, Hezkuntza Saileko sukaldarien baldintza berberak exijituz. Homologazioa lortzea da helburu nagusia, baina azpimarratu dute jantoki zerbitzua guraso elkarrengan esku uzteak ere kezka handia sortzen diela. Proposamen hori “fundamenturik gabe” egin izana salatu dute langileek.

ALTERNATIBAK MAHAI GAINEAN

Catering enpresa handiek kudeatutako jantokien eredutik at hainbat saiakera egin dira Euskal Herrian. Horietako asko nazioarteko ereduaren oinarrituta. Ima-



HEZKUNTZA ERAGILE GEHIENAK BAT DATOZ:

JANTOKI ZERBITZUA HEZKUNTZA KOMUNITATEAREN BARRUAN EGON BEHARKO LITZATEKE ETA ESKOLA JANTOKIETAN LANEAN DIHARDUTEN PERTSONEI IZAERA HEZITZAILEA AITORTU BEHAR ZAIE



BEKOBENTA IKASTETXEKO GURASOAK: "DAGOENEO HURRENGO IKASTURTEKO MENUA PRESTATZEN ETA ELIKAGAIAK LORTZEN HASI BEHARKO GINATEKE, BAINA EZ DAKIGU ZER GERTATUKO DEN GUREA MODUKO EREDUEKIN ETA PARALIZATUTA GAUDE"

zek azaldu du EHIGE guraso elkarteak bultzatutako *Gure platera gure aukera* ekimenak, esaterako, hainbat eredu eza-gutu dituela: "Kanariar Uharteetan aspaldi ari dira Nekazaritza eta Hezkuntza sailak elkarlanean eskoletan kalitatezko eta bertako produktuak eskaintzeko asmoz". Nabarmendu digu Frantziako Estatuan ere kontzientzia handia dutela eta asko direla bertako janari ekologikoa-rekin hornitzen dituzten jantokiak, eredu hezitzaileari begiratzen diotenak eta hurrek janaria nondik datorren ikasteaz arduratzen direnak.

Eredu berriak beren kabuz martxan jarri dituztenen artean, aitzindari dira Larrabetzuko eta Erandioko ikastetxeak. Baina Perezek dio bestelako ereduak

gutxi direla Euskal Herrian, Hezkuntza Sailak hasieratik oztupoak jartzen dituelako: "Adibidez, kudeaketa zuzena onartu ez zieten eskolei dirulaguntzak kendu zizkieten, hau da, zigortuak izan ziren. Trabak traba, batzuek horretan jarraitu zuten; Larrabetzuko izango da ezagunenetakoa, baina apurka-apurka beste ikastetxe batzuk ere eredu inposatutik atera dira. Inguruko nekazariekin lan egiten dute eta gertuko produktuak eta sasoikoak kontsumitzen dituzte". STEILASeko kideak uste du Hezkuntza sailak kudeaketa catering enpresenen bidez egitea lehenesten badu, enpresa txikiei ere aukera eman beharko zaie: "Eguneko 8.000 menu prestatzeko aukera edukitzea beharrezkoa bada, en-

presa txiki eta gertukoek ez dute zereginik lehia horretan".

Ildo berean hitz egin du EHIGEko koordinatzaileak ere. Haren ustez, erraz egin daitezkeen hainbat aldaketarekin posible da jantokietan bertako produktuak eskaintzea: "Adibidez, lizitazioetan bertako produktuak eskaintzen dituzten enpresei puntuazio handiagoa emanda". Gogorarazi du egungo ereduak balio izan duela jantoki zerbitzua unibertsalizatzeko, baina trantsizio eta aldaketa garai baten aurrean gaudela. Zuriñe Egia ere bat dator: "Horretarako, beharrezkoa ikusten dut sukaldari ez duten eskolei sukaldeak jartzea eta catering enpresa txikiei lehian sartzeko aukera eskaintzea". ●



Alberdi
EUSKAL ARTISAUTZA

**OPARI BEREZIETARAKO
PERTSONALIZATUAK
PREZIO AUKERA DESBERDINAK**

ESKAERAK
azoka.argia.eus
☎ 943 371 545

PSIKOTERAPIEN HAZKUNDEA INGURUNE MILITANTEETAN

GUAREN ETA NIAREN ARTEKO OREKA ASKATZAILEEN BILA

Enpresetan, ikastetxeetan, kirol taldeetan... ez da psikologorik falta; artea, umorea edo bainua zirenak arteterapia, barreterapia eta hidroterapia dira egun, eta gure elkarizketetan ohikoa da bipolar, neurotiko, depresibo edo psikosomatiko moduko terminologia erabiltzea... *Homo politicusetik homo psicologicusera* igaro gara, baita ingurune militanteetan ere.

Z. OLEAGA

Hipotesi batetik abiatzen gara: azken hamarkadan eta Euskal Herriko ingurune ezkertiar-militantean, psikoterapia motaren batean dagoen edo egon den pertsona kopurua nabarmen hazi da. Militantziei eta borrokei loturiko ezinegonak, zauriak edo maMuak lantzetik harago, bizitzaren bestelako min eta dimentsioei ere heltzeko. Lau pertsonari galdetu diogu pertzepzio horren inguruan. Nagore Lopez de Luzuriaga Comunion eta Olatz Barrenetxea Larrondo psikologoekin Bilbon elkartu gara. Biek dituzte kontsulta pribatuak eta biek dute lotura herrigintzarekin. Iban eta Arkaitz Martinez de Albeniz Lopez de Subijana anaiekin Gasteizen egin dugu zita. Gaztetatik militantziari

emanak, une eta arrazoi ezberdinengatik hasi ziren terapian aspaldi. Terapiak formazioekin uztartu dituzte urteetan. Laurek egiten dute bat abiapuntuko hipotesiarekin, baina zeri erantzuten dio psikoterapien hazkundea? Zergatik jotzen zen lehen gutxiago dimentsio eta lanketa pertsonal horretara? Zergatik orain gehiago? Zein indargune eta ahulguneri erantzuten dio joera honek?

GUAREN AHULTZEA... ETA ABERASTEA

Psikologizatzearen arrazoietakoa batzuk Mendebaldeko eraldaketa eta joerekin lotuta daude. “Barne-iraultza” eman da gizarte postmodernoetan: sekulako ‘kontzientzia-mugimendua’, inoiz ez bezalako interesa norberaren ezagutza-

rekiko eta errerealizazioarekiko (...) 60ko hamarkadako sentsibilitate politikoak ‘sentsibilitate terapeutikoari’ eman dio bide. (...) Autokontzientziak klase kontzientzia ordezkatu du, kontzientzia nartzisistak kontzientzia politikoa”, idatzi zuen Gilles Lipovetsky filosofoak. Baina zer da nartzizista, niari arreta jartzea ala hori egiteko modua? “Norbanakoa zaintzea ez da nartzisismoa edo egozentrismoa elikatzea. Nik uste biak uztartu daitezkeela, pertsonala eta kolektiboa” dio Ibanek. Dimentsio pertsonala zaintzeari eta autoezagutzari garrantzia ematen diote elkarizketatu guztiek.

Afera Euskal Herrira ekarrita, normalizatu gabeko herria izan da gurea hamarkadetan, demokrazia kapitalista

mendebalderen paradigmatic begirata bederen. Anormaltasunaren enborra identitate nazional ezkertiarrean eta horri loturiko borroka erradikal oso hedatuetan kokatu dezakegu –adar askoko enborra, bestalde–. Mendebaldean postmodernitateak oro har gutasunak eta zehazki gutasun ezkertiarrek disolbatzen zituen bitartean, Euskal Herria solidoago mantentzen zen, eta sare kolektibo eta komunitarioak biziago zeuden. Kultura politiko oso bat garatu zen borroka horien inguruan, eta pertsona eredu jakin bat horren barnean. Gutasuna ahulduz joan da, ordea; herri normalizatuagoa gara egun. Borroka armatuak ezaugarritzen zuen ziklo politikoaren aldaketa ahultze horren ondorio zein kausa da aldi berean, ziurrenik.

Ikuspegi horretatik, psikoterapien biderkatzea galera baten ondorio izan daiteke, “partaidetza-eza” sentimendu batena. “Bai ikusten dudala kolektibotasun hori ahulagoa. Noraez handia egon da bost-hamar urteotan, eta noraez horretan ate pertsonalagoak zabaldu dira, ez bakarrik psikoterapia”, dio Arkaitzek. Bestelako ate pertsonal terapeutikoen artean mendiko lasterketak aipatzen dituzte bi anaiek, barrez, baina ez txantxetan. Oposizioak edo drogak aipa litezke ere, adibidez.

Baina eraldaketak galeratik ez ezik askatzailatik ere badu. Barrenetxearen iritziz, “militantziak eta borrokak ekarri duena da ‘gu gara’ indartsu bat, baina nia desagertuta”. Lopez de Luzuriagak dio urte luzez gutasun horren iruditeria 80ko hamarkadako gizonezko militantearena izan dela: “Eremu emozionala ez alboratzea ahaldearekin lotzen zelako; beldurra edo tristeziaaren moduko emozio ‘negatiboak’, etsaiari arrazoia ematearekin; segurtasuna eta irmotasuna erakutsi behar zen”.

Sarri zurruna eta itogarria egiten zitzaizen militantzia bizi zuten gutasuna Martinez de Albeniz anaiei. Legez kanporatzeen hamarkadan hasi ziren Ezker Abertzalearen egituretan militatzen. “Batetik militantziaren irudia eta eredu, indartsua eta segurua izan beharra, bestetik kaka baten moduan sentitzea

eta nire miseria guztiak: oso zaila egiten zitzaidan biak uztartzea”, aitortu du Ibanek. Arkaitzek ildo beretik hitz egiten du: “Garai batean bizi izan nuena izaeren eta militantzia moduen aniztasunaren aurkakoa zen. Oso grabatuta geratu zitzaidan 24 orduko militantearena. Gogortasuna zen balore zentrala. Eta espetxean berdina. 2009an irten nintzen kalera. Aldaketa politikoak lagundu zidan 24 orduko militantzia hori modu lasaigoan bizitzen, baimendu zidan alde hauskorra ateratzen eta lantzen”.

Arkaitzek espetxean izan zuen psikoterapiarekin lehen kontaktu oso azalekoa, Presoen Kolektiboko psikologoarekin. Irteterakoan terapia berrartzea erabaki zuen. Hasiera batean militantziari eta espetxeari loturiko zauriak lantzeko.

Laster sentitu zuen, ordea, autoezagutza askoz harago zihola. Iban gerago hasi zen psikoterapiari, zortzi bat urte direla, 26 urte rekin. “Krisi pertsonal batengatik hasi nintzen. Hasi nintzen adabaki baten moduan ikusten nuen, orain nire bizitzan integratua dut”. Militante irudi publiko sendoa zuen Ibanek. Arkaitzek Iban “erori” zen garaia ekartzen du gogora: “Askorentzat izan zen ‘joder, hau erortzen bada, Iban hauskorra bada, ni ere erori naiteke’. Batzuk zentzu positiboan, ‘nik ere baimendu diezaioket nire buruari erortzea’; beste batzuk beldurretik, segurtasunaren eraisketa bezala”.

NIAREN INDARTZEA...
ETA POBRETZEA
Luze alboratuta egon ostean, beraz, niak presentzia irabazi eta arnasa libreago hartzen du gure artean. Ibanen aburuz, “orain dena erlaxatu denez, baldintza hobeak daude aurretik genituen gabeziak azaleratzeko”. “Zabaltzen doa zure buruari aurrez aurre eta osoki begiratzeko zenbat eta gaitasun gehiago izan orduan eta indartsuagoa zaren logika hori”, uste du Lopez de Luzuriagak.

Norbanakoarekiko arretaren ize nean, ordea, norberekeria saltzen digu kapitalismoak. Jendarte arazoak gabezi eta erru pertsonal bihurtzen dira. Laguntzarik fidagarriena autolaguntza da, nor bere buruarekin ondo egoteko modua, autoestimua lantzea. Psikoterapien esparruan eskaintza askotarikoa da, baina ugariak kognitibo-konduktualak eta farmakologikoak dira: epe motzeko eraginkortasunean, ikuspegi neuronalean, sintomak ezabatzean eta egiteari ez uztean zentratzen direnak.

“Ez da ulermen kolektiborik edo sozialik ematen. Helburua da inor behar ez izatea eta zure kabuz moldatzea, hain juxtu bakardadea denean gaixotzen gaituena”, dio Lopez de Luzuriagak. “Pertsonak daude gaixo? Jendarte dago gaixo, eta gu jendarte horretan bizi gara”, Barrenetxeak.

Gutasunak terapeutikotik ere asko baitu. Itotzen zuen gutasun berberak zaintzen zuen Arkaitz: “Ni momentu askotan oso babestua sentitu naiz. Espetxean izugarri. Horrek duen balio guztiarekin”. “Nire irakasleak esaten zuen bizitzari zentzu handiena ematen diona kidearen sentimendua dela, ideal komun batzuk partekatzea. Iraultza egitera dedikatuko bagina depresio gutxiago egongo liratekeela”, kontatu du Lopez de Luzuriagak. Gutasun handiak soilik ez, hurbileko eta hezur-haragizko pertsonak ere zaizkigu terapeutiko. Beste modu batera esanda: gainontzeko langileekin lehian jartzen nauen eta erabat esplotatuta naukan enplegu batek deprimitzen banau, seguru terapeutarenera joatea baino terapeutikoagoa zaidala lankide edo sindikatu borrokalari batekin harreman konplizea.

FEMINISMOA ETA MASKULINITATEA
Pertsona eta haien hauskortasunei lekua egiteko orduan feminismoa lagungarria izan da, Barrenetxea zein Lopez de Luzuriagaren ustez. Adierazgarria da psikoterapien mundua oro har oso espazio feminizatua izatea, hauskortasuna ez ezik zaintza ere feminizatua baitago. Terapia egiten duten pertsonen artean, baina, Lopez de Luzuriagak ez du hainbesteko alderik antzematen. Gizonek ahuleziarekin duten ukazio harremana ikusita, gutxiago izatea espero zitekeen agian, baina aldi berean, hauskortasuna partekatzeke zailtasunak laguntza profesionalaren beharra handitu dezake zenbait egoeratan. Eta laguntza modu onargarriagoa izan daiteke terapia, isilpean eraman baitaiteke. Kontuak kontu, azken hamarkadan gizonezkoen proportzioak gora egin



ARKAITZ MARTINEZ DE ALBENIZ:

**"MILITANTZIAN NOLABAITEKO
ZIGORRA SENTITU DUT ARLO
PERTSONALA LANTZEAGATIK.
ZAILA DA DIKOTOMIA HORI
KUDEATZEA"**



Z. OLEAGA

OLATZ BARRENETXEA (EZKERREAN) ETA NAGORE LOPEZ DE LUZURIAGA PSIKOLOGOAK. BARRENETXEAREN HITZETAN, "PSIKOLOGIAK ALDE PSIKOSOSIALA LANDU BEHARKO LUKE, EZ HAINBESTE TERAPIA INDIVIDUALA. HORI DA BENETAN JENDARTE SANOA LORTZEKO MODUA".

du. Gizontasun ereduak aldatzen ari diren seinale?

Martinez de Albeniz anaiek masakulinitatearen auzia jarri dute erdian. Ibanen erorialdiak, esaterako, ez zuen hainbesteko harridurarik sortuko, gizona ez balitz: "Uneren batean ere krak egin duten lagun militante batzuen artean komentatu ohi genuen, gurean *kojonimetroa* egon dela. Iraultzailetik gutxi duen eredu tradizional hori". Arkaitz harago doa: "Nik militantzian nolabaiteko zigorra sentitu dut arlo pertsonala lantzeagatik. Zaila da dikotomia hori kudeatzea".

PENDULUTIK HARAGO, OREKA ASKATZAILEA XEDE

Hamarkadetan gutasuna nagusitu da – bertuteak dituen, baina niarekin errepresiboegia –, eta orain niak hartu du protagonismorik handiena –alde positiboak dituen, baina ondokoekiko

eta gutasun eraldatzaileekiko loturak askatzen dituen. Horra pendulua. "Hori ere ez da sana. Baina uste dut prozesu hori pasa behar dugula, pertsonalki eta herri bezala" dio Arkaitzek.

Pertsonen oinazeak baretzeko edo autoezagutzarako balio du psikoterapiak, baina jendarte osasuntsuago eta libreagoak eraikitzeko erreminta ere bada. Horretarako, ordea, bestelako terapia motak behar ditugu. Gure lau solaskideek kritikatu dute aditu-ezjakin erlazioa: alegia, terapiara doan pertsonaren osasun mentala, emozionala eta erabakimena terapeutaren esku uztea. Autoezagutza ez da "terapia espresekina" osagarria,

denbora eta ahalegina eskatzen du. Barrenetxeak terapia kolektiboa aldarrikatu du: "Psikologiak alde psikosoziala landu beharko luke, ez hainbeste terapia individuala. Hori da benetan jendarte sana lortzeko modua". Ahaztu gabe,

sufrimendu oro ez dela gaixotasun; autoezagutza eta terapia ez direla ezinbestean edo bakarrik psikoterapiatik pasatzen; bizitzaren zauriekin edo norbere mamuekin elkar-bizi ahal izateko, lagunak direla adituak baino beharrezkoagoak; gutasun eta kidesun sendo eta malgurik gabe ez dagoela pertsonen minak arintzerik; eta alderantziz, pertsona sendo eta malgurik gabe ez dagoela min kolektiboak gainditzetik. ●

“

NAGORE LOPEZ DE LUZURIAGA:

"IRAULTZA EGITERA DEDIKATUKO BAGINA, DEPRESIO GUTXIAGO EGONGO LIRATEKE"

ARTZINIEGA, 1771

Euskarazko lehen interpretearen zantzuak

Maria Antonia Barrenetxea dimoztarrek epaitegietara eramane zuten ezagutu zaharra ez zuten Manuel de Carredano portugaleterrarra. Elebakar euskalduna izan dimoztarra, eta hizkuntza aferak agerian geratu ziren epaiketari. XVIII. mendeko Artziniegako egoera soziolinguistikoaren zantzuak antzematen laguntzen dute orduko agiriek.

TESTUA | ARSENIEGA BLOGA arseniega.wordpress.com/

ILUSTRAZIOA | MAITANE GARTZIANDIA

Artziniegako Udal Artxiboan gordeta dauden agirietan azaltzen denez, 1771ko urtarrilaren 17ko arratsaldean hiru emakume heldu ziren Uretako bentara ostatu eske. Lorenzo de Urizar zen bentako ugazaba, eta Lorenzo emakumei entzun egin zien haiek tako bat haurdun geratu zela irailan, Arteko ferian, eta haurdun utzi zuen gizonaren bila zebilela. Emakumeak bizkaitarrak ziren eta euskaraz ari ziren euren artean. Baina Lorenzo ere euskalduna zen, dena ulertu zuen eta horren berri eman zien agintariei. Maria Antonia izeneko emakumea engainuz haurdun utzi zuenaren bila zebilen lagun bigaz lagunduta. Eta topatuko zuen, esan bezala, kontua auzibidera joan eta bertan ebatzi zen eta.

GERTATUTAKOA AUZIBIDERA

Hurrengo egunean bertan, Pablo Antonio de Aldama alkatea buru zela, Lorenzo eta hiru emakumeak auziaren berri ematera agertu ziren. Alkateak galdetu zuen zein zen Maria Antonia izeneko eta beste biei ateratzeko eta itxaroteko esan zien. Berehala konturatu zen ez zela gaztelaniaz moldatzen. Ikusita Maria Antoniak ez zekiela gaztelaniaz

–edo behintzat, ondo ez zekiela– alkateak interprete izendatu zuen Lorenzo bera, euskalduna zelako. Maria Antonia Dimakoa zen, hogeita hamar urte zituen eta Joseph de Goioagaren alarguna zen. Bere testigantzan ederto kontatzen du nola sukaldari modura joana zen Arteko Landako feriara “pelo postizo” (sic) esaten zioten Bilboko emakume baten tizat lanean, eta nola Portugaleteko Manuel de Carredano ezagutu zuen bertan. Carredanori Maria Antonia gustatu ei zitzaion eta, esanez bera ere alarguna zela eta emakume bat behar zuela, Maria Antoniaaren testigantza arabera, ohera eroatea lortu zuen irailaren 20aren bueltan.

Ikusita umedun zegoela, Maria Antonia Carredanoren bila joan zen Portugaletera. Bertan ikusi zuen kontatutakoa gezurra zela eta Carredano gizon ezkondua zela. Gizonak dirua eskaini zion isiltzearren, eta Maria Antoniak halakorik onartzeko prest ez zegoenez, justizia eske joatea ebatzi zuen.

Baina utzi dezagun alde batera epaiketa eragin zuen afera sentimental-sexuala eta gatozen atzera hizkuntzaren harira. Geroago ikusiko dugu auzia zertan geratu zen.


EPAIKETAREN ALDERDI LINGUISTIKOA ETA BERE GARRANTZIA

Artziniegako historia soziolinguistikoak asko du oraindik ikertzeko, konplexua da eta azkenaldian han-hemenka pistak baten ari gara, argia eman nahian. Oraingoan hizpide dugun kasua berezia da, orain arte halakoren berririk ez dugulako izan.

Aztertu dezagun arretaz, beraz, zer erakusten digun 1771ko epaiketa honek panorama soziolinguistikoaren aldetik: Zergatik behar izan zuten interprete bat? Erdaldunak ziren agintariak? Nor zen interprete hori?

Hasteko eta bat, gogora ekarri behar dugu XVIII. mendean euskararen atzerakada nabarmena gertatu zela Aiaraldean –Arabako beste leku askotan lez– bai eta Gordexolako haranean. Artziniega berezia zen alde horretatik, bi hizkuntzak lehenagotik bizi izan zirelako elkarren ondoan, baina ezinbestean nabaritu behar zuen atzerakada: Manuel de Mezcortarekin Batzar Nagusietan gertatutako arazotik ehun urtera, ez dirudi Aiaraldeko mendebaldean euskaldun elebakarrak izango zirenik. Euskaldunak, oster, bai, baita Artziniegan bertan ere. Lorenzo Urizar (edo Ulizar) Uretako ben-





teroa da adibide. Hari buruz esaten zaigu hiriko bizilaguna eta euskaldunzaharra zela (*"las oyo y entendio de su vascuence, en que dho Lorenzo es natibo"*). Baina artziniegarra zen? Badirudi ezetz; erregistroetan begiratuta, ikusi dugu Lorenzo Urizar Etxebarria arratiarra zela; Goredolako Martina Zabalburu Mendibilegaz ezkondata zegoen eta Artziniegan hil zen epaiketa izan eta 10 urte geroago, 1781ean. Beraz, ez gaude bertoko euskaldun baten aurrean, kanpotik etorritakoa baitzen. Bide batez esanda, bitxia da zelan bere abizenak "aiarartzen" diren erregistroetan, sarri Lorenzo Ulizar Charria modura azaltzen baita.

Bertan zeudenek, orduan, ez zioten Maria Antonia ulertzen eta horregatik behar zuten itzultzaile bat? Ikusi dezagun arretaz agiriak dioena:

"Nombro a Lorenzo de Ulizar vezino de la dicha villa por ynterprete, a quien tomo también juramento, y rezibiendole de nuevo a la dicha Maria Antonia, la hizo presente el tenor del auto de oficio, por medio de dicho ynterprete y por él mismo, como también por muchas palabras de castellano que combenian con lo que manifestaba el ynterprete ante mi el escribano".

Zati honi erreparatuta, ematen du alkateak gaztelaniaz hitz egin zuela, baina

baita euskaraz ere, zuzenean Maria Antonia –*"por medio de dicho ynterprete y por él mismo, como también por muchas palabras de castellano"*–. Aketza Merino historialariari kontsulta eginda, eta garai bateko epaiaekin duen eskarmen-tua baliatuta, uste dugu baietz, Pablo Antonio Aldama alkatea euskaraz eta gaztelaniaz aritu zela eta interpreteak eskribauarentzat jardun zuela, eskribaua erdalduna zelako. Zaila da egoeraren "argazki" zehatza irudikatzea, baina hala izan zelakoan gaude.

Halandaze, lekukotasun honek berresten du euskararen presentzia Artziniegako hirian XVIII. mende amaieran. Bestelako ondorio sakonagorik ezin dugu atera momentuz, baina baditugu agirian; batetik, kanpotik joandako euskaldun elebakarrak –Maria Antonia eta bere bi lagunak–; bestetik, bertan bizi den elebidun bat –Lorenzo Urizar–; eta azkenik, itxura batean euskaraz ere badakien artziniegarrak bat, Pablo Antonio Aldama alkatea (1739an jaioa). Azkenik, eskribau erdaldun bat azaltzen zaigu, baina ez dugu oraindik asmatu nor izan ote zen argitzen.

Lekukotasun garrantzitsua da, hortaz, euskarazko interprete bat erabili izanaren lehena delako Artziniegan, eta nahiko berandukoa delako, inguruotan eus-

kararen atzerakada handiena jazo zen garaikoa, hain zuzen ere. Seguru gaude agiritan zenbat eta gehiago arakatu, gehiago azaleratuko direla.

ADDENDUM: EPAIA ETA "KRIMENAREN" ZIGORRA

Nahiz eta artikulua honen xedea ez den Maria Antonia Barrenetxea dimoztarren eta Manuel Carredano jarrilleroaren arteko aferaz xehetasunak ematea, kulebroiak izan zuen amaieraren berri behintzat emango dugu: frogatu zen Juan Manuel Carredano gizon ezkondua zela eta Maria Antonia engainuz utzi zuela haurdun Artziniegako ferian dako izarapeko tratuen ondorioz (*"actos sensuales"*, dio agiriak). Atxilotzeko agindua eman zuten eta adulterioa egiteagatik epai gogorra ezarri zioten: espetxera sartu ala ejerzitoetan zerbitzua ematera behartuta joatea. Maria Antoniak ordaina eta justizia jaso zituen, orduan? Ez bada; ahultasuna eta bestelako faltak egotzita (*fragilidad, lascivia, amancebamiento*) giltzapetzeko agindua eman zuten, hau da, etxe batean atxilo egotekoa. Aurrerantzean Artziniegako Tomasa de Ulibarriren etxean egongo zela giltzapean ezarri zuten, eta jaiegunetan elizkizunetarako baino ez zela aterako. ●

Gose grebalari kurduak justizia gose

2018ko azaroaren 8an utzi zion jateari Leyla Güven legebiltzarkide kurduak. Mundua beste alde batera begira den bitartean, gose greban 100 eguneko langa kritikoa gairatua du berak, eta atzetik beste 400 kurdu baino gehiagok protestarekin bat egin dute. Eskaera bat eta bakarra dute: Abdullah Öcalan buruzagi presoaren 20 urteko isolamendua amaitzea. Hori lortu arte ez dutela jango diote.

LANDER ARBELAITS MITXELENA @larbelaitz

Kurduak bero hasi dute 2019. urtea. Bobby Sands eta beste bederatzigose grebalari irlandarrek espetxean bizitza galdu zutenetik laster 40 urte beteko direnean, Leyla Güven izeneko politikari eta ekintzaileak borroka molde bera hautatu du Öcalanen isolamendua amaitzea helburu.

Euskal Herrian bere izena oso ezaguna ez bada ere, 55 urteko emakume honek feminismoari eta herri kurduaren aldeko borrokarik eman dio bizia. Emakume Askeen Mugimenduko (TJA) kidea eta ilegalizazioen ostean sortutako KCD alderdi kurdu abertzaleko presidentea da, beste kide batekin kargua partekatuz. Küçükdiki herriko alkate izan zen 2004 eta 2009 bitartean eta Viransehir herrikoa 2014 arte. Turkiako legebiltzarkide hautatu zuten ondoren HDP koalizio ezkertiarren izenean, plaza zaila kurduentzat inondik ere. Turkiako armadak Siriaren menpe dagoen Afrin eskualde kurduan egin zuen inbasioa kritikatzegatik 2018ko urtariraren 22an behin-behinean atxilotu zuten. "Erakunde terroristak gidatu eta babestea" egotzita 31 urte eta erdiko espetxe zigorra du jokoan.

Azaroaren 17an gose grebari ekin zion eta nazioarteko elkartasun presioa tarterako, urte honetako urtariraren 25ean askatu zuten, baraualdian 79. eguna bete zuenean. Bere eskaera bete ez zutenetz, etxean protestarekin jarraitzen zuela jakinarazi zuen. 98. egunean larri eraman zuten ospitalera, eta bertan medikatua izateari uko egin zion.

400 LAGUN GOSE GREBAN

"Leyla Güvenen eskaera gure eskaera da" lelopean, 400 lagunek baino gehiagok bat egin dute gose greba mugagabearekin. Iraken menpeko Hego Kurdistanen Nasır Yağız izeneko gazteak bi aste geroago hasi zuen baraualdia, eta lehenak 100 egun bete zituen, honek 87 egin zituen. Hau ere oso kritikiko dago. Ipar Kurdistanetik joandako erbesteratu politikoa da. Honez gain, hainbat herrialdeetako kideek osatutako Nazioarteko Bake Delegazioak adierazi du -PKK eta PJAK erakundeetako- 313 preso politikok ere Guvenek hasitako biderei ekin diotela Kurdistan eta Turkiako espetxeetan. 60 egunetik gora daramatzate hauek gose greban. Kurdistango emakume talde ugari ere gose greba abiatu du, baita hamaika ekintzailek atzerrian ere: Frantzia, Gales, Libano eta Kanadan, adibidez.

Speak up for Leyla kanpainaren presioari esker urtariraren 12an Abdullah Öcalanek bere anaiaren bisita azkar bat izan zuela jakinarazi dute. Lehen bisita izan da bi urtean, ezohiko baldintzetan lotua eta indarrean dagoen bisita-prozeduratik kanpo. "Turkiako gobernuak Güvenen erresistentzia apurtu nahi du. Hala ere, Öcalan ez dute isolamendu egoeratik atera. Gose grebalariek gobernuaren planak agerian jarri eta garaitu egin dituzte, erresistentzia zabalduz".

Leyla Güvenen gose grebak kalera atera ditu berriro ere milaka kurdu.





ZERGATIK ÖÇALAN?

Kurdistanetik kanpo batzuetan zail egiten da ulertzea zergatik emakume kurduek ere Öcalani ematen dioten horrenbesteko zentralitatea, bizitza emateko prest egotera. Ez al da hori kontraesana ikuspegi feminista batetik? Hona *Munduko emakumeei gutun irekia* artikuluan Leyla Güvenek berak nola arrazoitu duen.

“Emakume kurdua naiz. Emakumeen aurkako injustiziari buruzko nire kontzientzia Öcalan jaunari esker garatu dut. Berak emakumeen askapenaren aldeko borrokari eman dion garrantziari esker, milioika emakumek borondate indartsua garatu dugu. Esnatze gisako bat bizi izan genuen eta ni emakume horietako bat naiz. Ikasi nuen nire generoarekin bakean bizitzen, pentsaera patriarkala borrokatzen eta feminista izaten. Öcalan jaunarengandik ikasi genuen gizar-tea soilik izango dela libre, emakumeak libre direnean. Ordutik, urte luzeetan emakumeen askatasunaren alde egin dut borroka eta hala jarraituko dut.

Nire esnatzea zor diodan Öcalan jauna isolamendu ziega batean daukate preso 20 urtez. Isolamendua amai dezatela eskatzeko gose greba abiatu nuen. Milioika kurdak ikusten dugu gure borondate politikoak Öcalanek ordezkatzan dituela. Ekialde Hurbilean eta munduan bakea eraikitzeko ahaleginetan ari den aktore garrantzitsua da bera. Preso gisa bere eskubide eta askatasunak ukatu dizkio-te, herrialdeko eta nazioarteko legedia hautsiz”.

Otsailaren 15ean 100 egun bete zituen gose greban Güvenek. Egun hartan 20 urte bete ziren 1999an Öcalan –APO ezizenez– Kenyan atxilotu zutela hainbat herrialdetako inteligentzia zerbitzuek elkarrekin egindako operazioan. Hasiera batean heriotzera kondenatua, ondoren bizi osoko espetxe zigorra ezarri zioten. Imrali uhartean goi segurtasun espetxe-ko preso bakarra izan zen lehen hamar urteetan. Azken urteetan ez zuen inork lortu berarekin harremanetan jartzea. Antikapitalista sutsua, bere liburuetan behin eta berriro erdigunean jartzen du patriarkatua borrokatu beharra.

Nola amaituko da kontua lehen hilotza mahai gainean jarritz gero? Mugituko al da Erdoganen Turkiako estatua? ●

Inudeak

BIZIRAUPENERAKO ZAINITZA

"Inude" hitza entzutean, XIX. mendean hirietan familia aberatsen haurrak zaintzen zituzten emakumeak etorri ohi zaizkigu gogora. Urtero oroitzen ditugu gure kaleetan dotore jantzitako emakume haiek. Errealitatea baina, jai giroan irudikatzen duguna baino askoz konplexuagoa zen. Hernaniko kasua aztertu dugu Hernaniko Udaleko Berdintasun Sailaren beka bati esker, eta aurki liburu formatuan argia ikusiko duen ikerlanaren zertzelada batzuk ekarri ditugu orriotara.

AMAIA RODRIGUEZ OÑATIBIA

Emakumeek elkar lagundu izan dute beti haur jaioberriari esnea emateko arazoren bat sortzen zenean. Amak esne gutxi zuenean, gaixorik egonagatik esnea erretiratzen zitzaionean edo bularra eman ezin zionean, auzoko laguntza jasotzen zuen. Inguruko komunitateak garrantzi handia zuen haur txikia aurrera ateratzeko orduan. XVI. mendean jadanik aurki daitezke halako adibideak Ingalaterran eta ahozko iturriei esker badakigu XX. mendera arte gutxienez horrela izan zela.

Inude gisa jardutea diru-iturri bat ere izan da beste askorentzat, bizirauteko estrategia kolektiboaren baitan. Aberatsentzat, aldiz, etxean inudea izatea besteengandik bereizteko modua zen, klase adierazle bat. Hirietako inude horiek ditugu ezagun, baina badaude folklorik ahaiztutako beste batzuk, haur abandonatuak –espositoak– bularra ematen zieten kasu, XX. mendearen erdira arte funtzio oso garrantzitsua izan zutenak bestalde.

AMA 'ONAK' ETA 'TXARRAK'

XIX. mendean klase burgesek eta "erreformatzailak" familiaren eredu nuklearra zabaldu nahi izan zuten. Hala, gizona izango zen etxeko iraupenaren ardura-

dun eta emakumeak emazte ona izatera mugatu behar zuen. Medikuntza eta higiena ahotan hartuta, "gaixo" zegoen jendartearen sendatu behar zela uste zuten, zientziaren bidez. Hortaz, edoskitze naturalari eta amak haur biologikoa zaintzeari jarri zitzaion arreta.

Hala ere, etxean inudea izateak jarraitu zuen izaten klase arteko marra loditzeko modu bat aberatsentzat. Eta baserrietan edo langile auzuneetan, berriaz, ezinezkoa zen kapitalismoak ezarri berri zuen familia eredu materialki betetzea... Soroko eta fabrikako lana utzi eta soilik haurren zaintza arduratu?

Familien errealitatea oso bestelakoa zen XX. mendean, Hernaniko Eulalia Lizaso [ezizena] inudearen kasuak erakusten digun bezala. Alarguna zen eta familia zabala zuen: senarra zenaren lehenengo ezkontzatik jaiotako sei seme-alabarekin, bere beste bi seme-alabarekin eta anaia Isidorekin bizi zen, eta horrez gain haur espositoa zuten etxean. Denera hamaika kide ziren baserrian 1940an.

Moral kristau eta burgesa indartsu zetorren ordea. Esaterako, guztiz lotsagarria zen ezkondu gabe edo ezkontzatik kanpo ama izatea, eta jaio berriak abandonatzeko joera hazi egin zen XIX.

mendearen bigarren erdialdean. Egoera horren aurrean erakunde publikoak esku hartzen hasi ziren. Lehenik, haurren heriotza tasa jaisteko –estatu nazio modernoan adierazle baitzen–, eta bigarrenik amatasunaren beste ideia bat zabaldu zelako: emakumeek beren izatean naturalki duten zerbait izatetik, ikas daitezkeen zerbait izatera igaro zen.

Ordura arte Elizaren menpe izandako benefizentzia-etxeen lana udal eta diputazioen eskuetara pasa zen eta umezurtzak zaintzen zituzten instituzio edo sehaska etxeak sortu ziren –kutsu katoliko sakona izaten jarraitu zuten arren–. Inudeak estu hartu zituzten eta haien gaineko kontrola areagotu, araudiak zorrotzu eta inudeak bi multzotan banatuz: barrukoak eta kanpokoak.

Haur "ilegitimo" bat izaten zuten ezkongabeak sehaska etxe barruan egotera derrigortzen zituzten, amatasuna "piztuko" zitzaielakoan. Aldiz, kanpoko inudeak ezkonduetako emakume pobreak izan ohi ziren eta haur espositoak zaintzea beste diru-sarrera bat zen haietentzat; gainera, askotan haur hori baserriko lanetan edo beste ofizio batean hasten zen koskortzean. Hernanin, adibidez, 1900 eta 1944 artean 25 haur itzuli zituzten Villabonako Faisoron ze-



***Kati Horna
argazkilariaren begia***

Edoskitzea irudikatzen duen argazki ezagun honen egilea da Kati Horna (Kati Deusch zuen jatorriko deitura). argazkilari hungariar anarkistak lan ugari egin zituen fotokazetari gisa eta tartean 1936ko gerra zibilean ibili zen, Bartzelona eta Valentzian barrena. Argazki hau eta hurrengo orrialdekoa 1937an atera zituen.

"Hori gertatu al zain? ekarri ezan, nik haziko dinat"

1 936ko Gerra aurrean eta ostean bi aldiz inude izan zen Anttoniren [ezizena] historia da honakoa. Tolosatik gertu, baserrian zuen bizibidea, senar eta bost haurrekin, beste emakume askok bezala, berak zeraman baserriko lanen zama, haren iloba lhintzak kontatu digunez.

Behin, ondoko herrian pilota partida jokatzeko ari zirela, jokalarietako bati pilotak lokian jo eta ziplo erori zen: frontoian bertan seko geratu zen gizona. Hildakoa ezaguna zen, herriko medikua izanagatik, eta haren alargunak bi seme eta alabarekin egin behar izan zuen aurrera, baina bularra erretiratu zitzaion trantzearen ondorioz; esnea moztu.

"Hori gertatu al zain? -galdetu zion Anttonik jazotakoa kontatu ziotenean- Ekarri ezan, nik haziko dinat". Eta hala, bere umearekin batera bular oparoetatik eman zion esnea jaoberriari. Hasieran hilabete batzuetako kontua zena, azkenetarako ia bi urtez izan zuten etxean ondoko herriko medikuaren eta haren alargunaren haurra. Anttonik elkartasunez egin zituen inude lanak, beharrak eskatuta eta bularrek emandako baliabideari probetxua ateratzeko.

Gero, gerra ostean, Fraisoroko sehaska etxetik beste haur bat eka-

rri zuen: Joakin. "Ahal zuenak alde egiten zuenez", haren amak ere gauza bera egin zuen, Argentinara egin zuen ospa; baina bi seme utzi zituen Fraisoron, ezezagunak zaizkigun arrazoiengatik. Haur esposito bezala hartu zituzten Gipuzkoako familia banatan bi anaiak, eta nagusitu ziren arte ez zuten elkarren berri izan.

Anttonirentzat dirutxo bat gehiago ekartzeko abagunea zen inude izatea. Baina denborak aurrera egin eta Joakin semetzat hartu zuten azkenean. Hala ere, mutikoak izaera menderakaitza erakutsi zuen baserrian gazte-gaztetik, "...ez soroan, ez ganaduan, ez morroi...", ihes egiten zuen sarritan. Hernanira ere eramane zuten, Anttoniren ahizparenera, baina alferrik, *alproja* deitzen zioten. Harik eta 22 urte ingururekin jakin zuen arte haren ezinegonaren zergatia: ez zen familia horretan jaioa.

Behin eta berriro joan zen Fraisoroko artxibo eta liburuak arakatzera eta anaia aurkitu zuen, baita Argentinatik bueltan Madrilen bizi ziren ama eta arreba ere. Halaxe baretu ahal izan zuen barruko arratxikitan abandonatu izanak bizitz baldintzatu zionaren kontzientzia hartu zuenean.



goen sehaska etxera -kanpoko inudeek zaindu ostean-, kopuru osoaren %18,51 baino ez; gainerakoak familiek seme-alabatza hartu zituzten.

Inudeak bizirauteko ziren inude: ordainetan jasotako "soldata" oso kaskarra zen eta ezinezkoa zen haurrak zaintzetik eltzea beteta edukitzea; esaterako, Gipuzkoako Diputazioak sehaska etxeetako inudeei hiru hilean behin ordaintzen zien jorrala lan merkatuko baxuenetakoa zen. Administrazioaren jarrera hipokrita xamarra zen beraz, eredia aldatzeko neurriak exijitu bai, baina inudeen



baldintza materialak ez zituen aldatu.

Eskasian ibiltze horrek inudeen estereotipo negatiboa zabaldu zuen gizartean. Hirietako burgesentzat inudea etxean edukitzea prestigio zeinu bat zen arren, haurrez arduratzen ziren inudeak klase baxuko zerbitzariak besterik ez ziren haientzat. Hala ere, inude horiei estatus handiagoa aitortzen zieten haur abandonatuez arduratzen ziren inudeei baino. Azken hauek, pobreak izateaz gain, gizartearen latsa zaintzeaz arduratzen ziren: haur abandonatu edo ilegítimoak, hots, ezkontzatik kanpo jaio ziren haurrak.



KUTXA FOTOTEKA

DONOSTIAKO POSTALETAKO INUDE HAIEK.

XIX. eta XX. mende hasierako familia burgesetan inudea izatea klase sozialen arteko marra loditzeko modua zen. Aitzitik, postal horietan ikusten diren inudeak ez ezik (goian, irudi txikian), baziren diru-sarreraren baten truke haur abandonatuak zaintzen zituztenak edota elkartasunagatik auzokoen haurrak hazten zituztenak. Alor produktiboaren eta erreproduktiboaren bereizketa kapitalistarekin talka egiten zuen haien jardunak.

ESKEMA KAPITALISTA ZALANTZAN

Paradoxa baten adierazle ziren inudeak: beren existentziak talka egiten zuen *higienistek* – osasunarekin kezkatutako mugimendu liberala – alor produktiboa eta erreproduktiboa bereiztearen ideiarekin. Teoria horren arabera, gizonei zegokien familia ekonomikoki soldatapean sostengatzea; emakumeak, berriz, etxeko zaintza arduratzen ziren, estatistiketatik at. Eta zer ziren inudeak? Non kokatzen ziren esfera publiko eta pribatuaren eskema horretan?

Inudeek garaiko kategorio horiek zalantzan jartzen zituzten, ofizialki haien egitekoa lantzat hartzen ez zen arren, horren existentziaren lekuko zirelako: Diputazioak berak ordaindutako lan erreproduktiboa zen. Hortaz, monetarizatu bai, baina enplegu gisa aitortua ez.

Horrek, haien inguruko oroimena lausotzea baizik ez du ekarri: erregistro ofizial guztietatik kanpo zegoen inudeen jarduna, ez dago arrastorik errolda ofizialetan, nahiz eta sehaska etxeko haur abandonatuak zaintzen zituztenen kasuan administrazio publikoarentzat egiten zuten lan. Ez zen lanbidetzat hartzen. Akaso gorputzetik abiatzen zen baliabide bat zelako bularra ematea? Emakumeek soilik bete zezaketen funtzioa, bide batez esanda. Baina inudeen lana ez zen edoskitzera mugatzen, beste di-

mentsio kultural bat ere hartzen zuen, emakumeen arteko elkar laguntza sareak tarteko.


LANBIDE BATEN DESAGERTZEA

Amatasunaren esentzialismoak gora egin ahala, kolektibo deserosoa izaten hasi zen inudeena. Elkartasun sareak eta, batez ere, ekonomia neoklasikoa hausten zuten figurak sobran zeuden, antza, XX. mende erdialdean industrializazioak ekarritako gizartean. Eraldaketa asko gertatu zen ordurako: hirien zabal-kundea, garraioen hedapena, bizimodu tradizionalaren eta landa eremuaren gainbehera, migrazio handiak... baita kide gutxiagoko familia eredu burgesaren nagusitasuna ere.

Ezkontzatik kanpoko amatasunaren estigma erabat desagertu ez zen arren, indartsuagoa zen emakumeek euren haur biologikoa kosta ahala kosta zaindu behar zutela inposatzen zuen pentsamoldea. Hala, abandonu tasa asko jaitzi zen eta sehaska etxeak hustu.

Formulako esnea ere urte horietan egin zen ezagun, haren ondorioz bularretan esnea zuen emakumea jada ez zen ezinbesteko haur jaioberria elikatzeke. Edoskitzea merkatutik atera zen behin betiko, etxeko eginbehar femeninoen zeregindan sartzeko, eta inudeen zeregina galbidean jarri zen. ●

GALILEOAK, UPEL BOROBILDUA



@SEGUINMOREAUSA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

SEGUIN MOREAU UPEL ENPRESAK SORTU DU ESFERA FORMAKO UPELA. "GALILEOAK" IZENA EMAN DIO, GALILEO MUNDUA BOROBILDU ZUENAGATIK ETA "OAK" INGELESEZ HARITZA DELAKO. 1.500 LITRO HARTZEN DITU.

Zura gogorrak, iraunkorak, tentsio eta indar handiak jasane behar izango dituztenak, ilbehera hauetan botako dira, nioen lehengoan. Deskuiduan horrelako zuren bat eskuratzeko zuhaitzen bat moztekotan bazara, otsaileko ilbehera hilabetearekin amaituko da, eta egun horiexek dituzu onenak, 21a, 22a eta 23a. Ustekabean harrapatu eta ezin moldatu bazara, urteko egunik onenak joan zaizkizu. Dena dela, toki hotzetan, berandu mugitzen diren zuhaitzak martxoko ilbeheran bota daitezke, 16tik 28ko eguerdira arte, alegia. Orduan ere egunik onenak 21, 22 eta 23 izango dira. Hala eta guztiz ere, zuhaitza nirea balitz, hurrengo negura arte bakean utziko nuke; behin martxoa jaten hasita, izerdia mugitua izatearen arriskua handia baita.

Haritza (*Quercus robur*), neguan bota ohi dugunetako bat da. Gure kulturean, eraikuntzan garrantzi handia izan du, baina baita ontzigintzan ere. Ontzietan, bai ur gazi eta gezetara ateratzen diren ontzietan, baita beste ur edo likido batzuk barruan jasotzen dituztenetan ere.

Udazkenean sagar edo mahats muztioz betetako ontzietan mama gozoa ontzen ari da. Barrikote, barrika, bukoi eta upeletan ere haritzak du sona. Orain eraisten den haritzak. Haritz horren enborkiz egindako ontziak edariari erantsiko dion sainetean bi eragin sumatuko dira: zuhaitz biziaren genetika eta bizi baldintzak batetik, eta akabatu ondorengo langintzak

bestetik. Material onena eskuratuta, bizioki zuen lurretik hilerri izango duen upategira egingo duen bideak zeresan handia izango du. Noiz epaitu eta lepoa moztuta akabatu, garraioa, nola zerratu enborra, nola lehortu eta nola borobildu ontzia, barrika ala upel ala... Geurean jakintza itzela izango zen upelgintzan, duela mende bat arte. Frantzian, aldiz, ikaragarritzko garrantzia du gaur egun ere. Mundu osoan dute sona hango ontziek, baita hariztiekin ere. Ontzigileak ez dira inor-ez batzuk, ez alajaina!

Seguin Moreau enpresa ezaguna da langintza horretan. 1838an sortua, iaz bere 180. urteurrenerako ardogileak egur eta zur utzi dituen berrikuntza bat aurkeztu du: etekin borobila ekarriko dion upel borobila. Borobil-borobila, esfera formakoa, alegia. "Galileoak" izena eman dio, Galileo mundua borobildu zuen polimatarengatik eta "oak" ingelesez haritza esateko hitzarengatik. 1.500 litro hartzen ditu, eta birakatu daiteke. Esfera da erresistentzia fisikoak eta inertzia termikoak maximotzen dituen forma naturalena. 55 milimetroko upolen artean beirazko leiho borobil bat ere jarri diote, ardointza errailetik ezagutzeko.

Hau irakurtzen duen bateren baten eskubiko eskuko behatz ttikiaren azkazala jokatu nuke, upol horiek egiteko haritza noiz moztu erabakitzen duenak ilargiaren eta planeten mugimenduen egutegia ondo berea duela... ●

LANDAOLA SARIAK

GIPUZKOAKO LANDA EREMUKO PROIEKTUEI AITORTZA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

**AZOKETAN SALTZEN ARITZEN DIREN
EMAKUME BASERRITARRAK, 'OREXA BIZIRIK',
'ERREZIL SAGARRAREN IBILBIDEA' ETA PEIO
RUBIO DIRA AURTENGO SARITUAK.**

Gipuzkoako Landa Garapen Elkar-teen federazioa da Landaola, sei eskualdetako elkarteek osatua: Behemendi, Deba-Garaia, Debemen, Goimen, Tolomendi eta Urkomek. Landa eremuari bultzada emateko hainbat proiektu egiten dituzte elkarrekin, eta elkarlan horren emaitzetako bat dira Landaola Sariak: bigarren urtez, landa inguruan martxan jarri diren hainbat proiektu saritu dituzte, lau arlotan: erakunde pribatuak, erakunde publikoak, urteetako ibilbidea eta emakumeak landa eremuan. Urtarrilaren 31n Itziarren egin zuten sari banaketa ekitaldia.

"Iaz hasi ginen Landaola sariekin, eta helburua batez ere da landa eremuan egiten diren proiektuak ikusaraztea. Proiektu asko abiatzen dira landa inguruan, eta horiei balioa ematea garrantzitsua da", azaldu du Yurre Peñagarikano Urkome Urola Kostako Landa Garapenerako Elkarteko eta Landaolako kideak. Ez dago dirurik sarien atzean, saritutako proiektuek jasotzen duten errekonozimendua eta erreferentzialtasuna da garrantzitsuen bultzatzaileen ustez.

Sarituak hautatzeko, erakunde publiko eta pribatuaren alorrean Landa Garapen Elkarteko bakoitzak bere eskualdeko proiektu bat proposatzen du, eta horien artean nori eman erabakitzen dute federazioan. "Landa Garapen Elkarteko bakoitzak lanke-ta egiten du bere eskualdean, eta eskualde bakoitzetik bi alor horietan ateratzen diren proposamenak ere ematen ditugu ezagutzera", dio Peñagarikanok. Modu horretan, sariketaren prozesuan eskualdeko proiektu ezberdinen garrantzia aitortu eta balioa ematen diete.

AURTENGO SARITUAK

Landaola sariek aurtin berrikuntza ekarri dute. "Landa eremuan eta batez ere baserrietan emakumeek garrantzia handia dutela ikusten genuen, baina hori ez zen sarietan islatu iaz". Hori ikusita, laugarren sari bat jartzea erabaki dute aurtengoan: Emakumea Landa Eremuan saria. Azoketan saltzen aritzen diren emakume baserrietarrei eman diete lehen sari hori.

Beste hiru alorretan hauek izan dira sarituak: erakunde publikoenean Orexako Udalaren 'Orexa Bizirik' proiektua, erakunde pribatuenean Errezilgo Ibarbi Elkartea 'Errezil sagarraren ibilbidea' egitasmoagatik, eta urteetako ibilbidearen saria Peio Rubiori eman diote nekazaritza ekologikoan eta lehen sektoreari lotutako mugimenduan urteetan parte hartzeagatik. ●

EUSKAL HERRIKO
AGENDA**MARTXOAK 2****USURBIL**

Sagarrondotik sagardora ikastaroa. 9:00etan Potxoenea Kultur Etxean.

MARTXOAK 2**ARRIETA**

Batzar irekia: *Bertoko basoari etekina atera ahal diogu? Nola?* 10:00etan Arrietako plazan.

MARTXOAK 2**AZPEITIA**

Kimaketa ikastaroa. 10:00etan Kimu1-en (Urrestila bidea).

MARTXOAK 2**HENDAIA**

Hartzak eta euskara hitzaldia. 10:30ean Euskal Erlaitzeko Etxean, Asporotstipin.

MARTXOAK 3**IRUN**

Aralar: Mundua leku den lurra dokumentala emango dute 20:00etan Amaia zinemari.

MARTXOAK 4**GASTEIZ**

Gutxiago gehiago da: deshazkunde ekofeminista hitzaldia. 17:00etan Etxanobe jauregian (Santa Maria kalea 11).

MARTXOAK 7**DONOSTIA**

Txorien identifikazioa kantuen bitartez ikastaroa. Aranzadi Zientzia Elkartean (Zorroagaina 11).

ASTEKO PORTADA HAUTATUA

1980ko abenduaren 21a



KOLDO IZAGIRRE

Asmatu duzu! Errata bat dago portadako titularrean! Asterokoa iza-nagatik, presak estutu egiten du... Baina hori al da portadaz esateko daukazu? Begia hezi behar zenuke.

Asma ezazu zer den irudi hori, luma edo atzamarra? Liburuak aipatzen zaizkigunez, estilografika bat dela esanen genuke, tinta gorria du baina. Luma-ren mokia moztu digutenez, zalantza sortzen digu. Emazteki dotore baten eria ez ote den, ospitale pribatu bateko kirurgia alorreko erizainen ugazabaren eria adibidez. Dena dela, tinta pasazteko balbulatxoa dauka, izan liteke estilografika. Tinta balitz, ordea, atzamarraren goialdeak gorritz azaldu behar luke. Edo ez, balbulatxoa bera izan liteke tinta depositoa. Baina tintaren kolore hori, ez ote da odola. Eman dezagun odola dela. Asma ezazu, beraz: gorri hori odola bada, zer irudikatzen du irudiak?

“Betiko joko psikologikoa” ipini zuten hasiera batean, gero “Betiko guda psikologikoa” hobeto zegoela erabaki eta aldatu egin zuten, ustez. Behin eta berriz irakurri arren ohartu ez jokoren j geratu zitzaizela g behar zuenari lekua janda. Barkagarri, ezta? Logikoa dirudi. ●

ARGIAK 100 URTE

2003-02-20 EUSKALDUNON EGUNKARIA ITXI ZUEN GUARDIA ZIBILAK

Dena aldatu zuen deia



MIREN OSA GALDONA
@Mirentx_U

ARGIA eta Ametzagaiña taldeko enpresetako langileak Egunkariaren itxiera salatzen prentsaurrekoa ematen. Mahaian, ezkerretik eskuinera, Berdaitz Goia, Xabier Letona eta Lontxo Zubiria.

Jada hamasei urte igaro dira euskal gizartea *Euskaldunon Egunkari*rik gabe utzi zutela, eta 2010ean akusatua errugabetzat jo bazituzten ere, saminari ez zaio pisua arindu oraindik.

Goizeko lauak aldera abisatu zioten Bego Zuza ARGIAko langile eta lagunari Pello Zubiria “eraman zutela”. “Ospitalera” pentsatu zuen, baina “ezetz, ospitalera ez, atxilo eraman zutela”, Malores Etxeberriak, Pelloren emazteak, telefonoaren bestaldetik. Irrati bidez jakin zuten *Egunkariaren* auzia zela-eta sartu zela Guardia Zibila euren etxera, baita Pello ez ezik, Inma Gomila lankide ohia eta euskal kulturaren beste zortzi erreferente ere atxilotu egin zituztela: Martxelo Otamendi, Iñaki Uribe, Joan Mari Torrealda, Txema Auzmendi, Xabier Oleaga, Fermin Lazkano, Luis Goya eta Xabier Alegria.

“Amets gaizto bat bezala bizi izan genituen egun haiek. Proiektu baten atzean dauden esfortzua, lan pila eta borondatea albo batera utzita, ziurra den bakarra proiektuak pertsoneri esker ateratzen direla da. Bada Madrilera joan ginenean ulertu genuen nola desegin zuten gau bakar batean amets handi hura, *Egunkaria* zen amets hura”. Hala oroitzen ditu Begok 2003ko otsailaren azken egunak. *Egunkariaren* itxiera oso gogorra izan bazen ere, are gaitzagoa izan zen laguna lau hormen artean imajinatzea. “Pello-

ren orduko osasun egoera oso kritikoa zen. Horrek kezkatzen gintuen gehien bat, baina une oro pentsatzen genuen Pellok zeruak eta lurak mugituko lituzkeela gu izango bagina barruan geundenak”. Ospitalera eraman behar izan zuten *Euskaldunon Egunkari*ko lehen zuzendaria inkomunikazioaldian, eta ospitalean jarraitu zuen inkomunikatuta beste egun batzuez, familiak inolako informaziorik ez zuela haren egoeraz, eta handik, epaileak osatutzat eman zutenean, Soto del Realeko espetxera eraman zuten. Hamabost egunen ondoren aske utzi zuen Juan del Olmo epaileak.

Euskal gizartean erantzun handia ekarri zuen. Horren eredu dira Donostiako manifestazio jendetsua edo *Euskaldunon Egunkaria* itxi berritan bertako langileek kaleratu zuten *Egunero* egunkaria. “Nolabaiteko haustura” eman zela dio Zuzak, jendearentzat pentsaezina baitzen “gure kulturaren hain garrantzitsua den jendeak” halako injustizia eta tortura pairatzea. Halaber, kontrakoa dirudien arren, ez du uste Espainiako Gobernuak esku artean zituen helburu guztiak bete zituenik, nahiz eta “min handia” eragin zuten. Bada, ordea, lefroartean argi geratu zaion ideia: “EAE gisa hainbat gauzetan autonomia izan arren, aginte makila duena Espainia da, eta horren aurrean ezer gutxi egin dezaket euskal erakundeek”. ●

ARGIA JENDEA

"BERDEA DA MORE BERRIA" LIBURUA

Borrokaren kontakizuna idatzita geratuko da



ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

@itsasozubiria

Isileko lana izan da. Ezkutukoa. Ahantzi-takoa. Kalera atera den arte, borrokarako prest, duintasunez. Inor gutxik eza-gutuko zituen orain bi urtera arte Bizkaiko egoitzetako langileak, baina oihiu egin dute entzun behar izan ditugun arte, bestaldera begiratzeko aukerarik utzi gabe. Taldean. 378 eguneko greba luzearen ondoren, kamiseta berdeak aineratu dituzte garaipena ospatzuz; eta orain historia idazteko garaia iritsi da. Onintza Irureta Azkune ARGIAko lankideak osatu du *Berdea da more berria*. *Bizkaiko egoitzetako grebalarien testigantzak* liburua, Manu Robles Arangiz Institutuarekin elkarlanean.

Bi zatitan bereizten du, nolabait, liburua egileak. Greba luze hori ulertzeko, historiara jotzen du, hasteko. "1980ko hamarkadatik 2016ra arte sektoreak izandako bilakaera ezagutu beharra dago lanuzte hori ulertzeko", dio Iruretak, "ez da egun batetik bestera piztutako protesta bat, bilakaera bat du". Irakurlea testuinguruan kokatu nahi da lehen atal honekin, historia osotasunean ulertzeko. Bigarren zatian, berriz, greban parte hartutako zortzi emakumeren testigantzak bildu ditu. Elkarrizketa hauek, ordea, askorako eman dute, bizipen ugari kontatu dituzte, eta liburuaren egileak ez du grebaren kon-

takizunera bakarrik mugatu nahi izan: "Grebak hasiera eta bukaera du, eta kontatzen digute nola hasi ziren, ibilbidea zein izan zen, protestak nola antolatu eta egin ziren... Baina azaldu dizkigute, baita ere, egunerokoan beren enpresetan bizitakoak, jasandakoak, lan-baldintzak... Parte hori ere garrantzitsua da, borroka hori ulertzeko".

Urtebeteko lanaren ondoren ikusiko du argia liburuak. ELA sindikatuaren Manu Robles-Arangiz Institutuarekin batera, otsailaren 20an aurkeztu da liburua Bilbon. Irantzu Varela egin du hitzaurrea, eta bera ere aurkezpenean izan da, Bilboko Bira Kultur Gunean. Hurrengo aurkezpenean martxoaren 7an izango da Baionan, 20:30ean Manu Robles-Arangiz Fundazioaren egoitzan (Cordeliers karrika 20, Baiona ttipian) eta ondoren iritsiko dira gehiago ere.

Azken aldian sektore prekarizatueta-ko emakume asko eta asko ikusten ari gara kalean, borrokan, antolatuta, eta sektore hauek guztiak bilduko dituen mahai-inguru bat antolatzen ere ari dira ARGIA eta Manu Robles-Arangiz Institutua elkarlanean.

Liburua azoka.argia.eus helbidean dago salgai, 14 euroan. ●

AZOKA

AZOKA.ARGIA.EUS



BERDEA DA MORE BERRIA LIBURUA

Bizkaiko zaharren egoitzetako langileen grebari buruzko liburua.

ARGITARATZAILEAK: Manu Robles-Arangiz Institutua eta Argia elkarlanean.

EGILEA: Onintza Irureta Azkune.

PREZIOA: 14 euro.



Otsailaren 9an Egizu Getxo Euskaldun elkarteak 63 lagun izan ziren ARGIAren Lasarte-Oriako egoitzan bisitan. Urte askoan, euskara zabaltzeko ahaleginak elkartu ditzala elkarte horretako ki-deak eta ARGIA Jendea.

ZEROCALCARE KOMIKIGILEA

"Gizarte zibila itzali egin da"



Rojavaren aldeko ekitaldi baten aurretik egin dugu hitzordua Zerocalcare komikigile eta marrazkilariarekin. Gazte italiarrak umorez eta melankoniaz aipatu ditu bere belaunaldiaren beldurrak eta kezak. Eta ez du Italiako egungo egoera politikoa ahaztu.

ANE IRAZABAL ELKOROBARRUTIA @Anelrazabal

Michele Rech (Cortona, Italia, 1983) bere komikietako pertsonaiaren kalkoa da. Edo agian alderantziz. Bekain handiko gazte lotsatiak ezin hobeki daki beldurren unibertsaltasunaz hitz egiten. Horregatik, bera eta bere ingurukoak dira istorio guztien protagonistak. Gaztaroko maitasun galduak, nagusi egiteak sortzen dituen kontraesanak, militantzia politikoaren gorabeherak eta adiskidetasun apurtuak dira Rechek azalera-tzen dituen sentimenduetako batzuk. Eta belaunaldi oso bat bere istorioekin identifikatuta sentitzen da. Hala, Zerocalcare edo "Calcà", lagunek esaten dioten bezala, Italiako komikigilerik arrakastatsuena bilakatu da. *La Profezia dell'Armadillo* (2011) bere lehen liburuak izugarritzko arrakasta izan zuen eta zinemara eraman zen. Ondoren iritsi ziren, besteak beste, *Un polpo alla gola* (2012), *Dimentica il mio nome* (2014), *Kobane Calling* (2015) eta *Macerie Prime* (2017). Guztira, bere

liburuek 700.000 kopia baino gehiago saldu dituzte eta hainbat hizkuntzataraz itzuli dira. Hain zuzen, Farmazia Beltza argitaletxeak *Macerie Prime* nobela grafikoaren lehen atala euskaratu du, *Hondamuiñean*, eta datorren udaberrirako liburuaren bigarren atala euskaratzea aurreikusten du. Michele edo Zerocalcare? Gaurkoan biak dira elkarriketa-ren protagonistak.


Lehenik eta behin, nola okurritu zitzaizun zure buruari Zerocalcare (zero kare) ezizena jartzea?

17 urte nituen eta Indymedia sarean piztu zen polemika batean parte hartu nahi nuen nire nortasuna erakutsi gabe. Une horretan, plantxentzako garbitzaila baten iragarkia jarri zuten telebistan: "Zerocalcareekin, karerik ez!". Eta ezizen aparta iruditu zitzaidan. 18 urteren ondoren izen hori erabiltzen jarraituko nuela jakin izan banu, ez nukeen inoiz Zerocalcare aukeratuko. Baina halaxe suertatu zen (barre artean).

Zure komikietan pisu handia du periferiaren kontakizunak. Erromaren aldiriak, gizartearen izkina abandonatuak edota pertsonok baztertuta ditugun beldur ezkutuak. Zergatik?

Periferia delako nire izaera hezurramitu duen habitata. Erromako Rebibbia auzoan hazi nintzen eta oraindik ere bertan bizi naiz. Duela gutxira arte aldiri estremoan zen Rebibbia. Metroaren azken geltokia da eta italiar gehienek ezagun egiten zaie Europako kartzelarik handiena bertan dagoelako. Halere, oso auzo kurioa dela esango nuke. Ez daude agregaziorako tokiak, zinemak edo pubak, baina bizilagunen arteko harremanak oso estuak dira. Niretzat afiliazioa esan nahi du. Rebibbia urrun dago, ez zara kasualitatez bertatik pasatzen, eta ezaugarri horiek komunitate sendo baten sorrera bultzatu dute. Argi esango dizut: ez naiz gai as-tebete baino gehiago Rebibbiatik kanpo pasatzeko.





Mikrokosmos horretan, gainera, zure komikietako pertsonaia asko animaliak dira...

Bai, finean, Disneyren marrazki bizi-dunak ikusten pasa nuen haurtzaroa. Komikiak egiten hasi nintzenean, oso arrunta egiten zitzaidan animalia antropomorfoak marraztea. Gainera, herri kulturaren animalia bakoitza ezaugarri batekin lotzen da, adibidez, azeria zuhurra da. Beraz, laburbide antzeko bat dira animaliak. Begirada batekin irakurleek jakin dezakete nolakoa den pertsonaiaren izaera marraztu dudan animalia arabera. Baina bada arrazoi garrantzitsuago bat. Nire komikietako pertsonaia gehienak benetakoak dira, eta haien nortasuna babesteko modu bat da animalia itxura ematea.

Eta lagunak zer diote zure komikietan islatuta ikusten direnean?

Zorionez, gehienek ez dituzte nire libururak irakurtzen! Baina *Hondamuinean* komikiaren kasuan, nire lagunak istorio pertsonalak eta delikatuak kontatzen ditut. Horregatik, haiengana jo dut, baimena eskatu diet eta elkarrizketak egin dizkiet. Gehienek komikia irakurri dute inprimategira bidali baino lehen-

go. Behar diren neurriak hartzen ditut gero haiekin eztabaidatu behar ez izateko (irribarre zabala).

“MATTEO SALVINIRI DAGOKIONEZ, HEDABIDEAK AUTOKRITIKA EGIN BEHARKO LUKETE. AZKEN BOST URTETAN EGUNERO AGERTU DA TELEBISTA SAIOETAN. HORREK MUNSTROA SORTU DU”

Baina zure lagunak bakarrik ez, zuk ere dantzan jartzen dituzu barruak...

Noski, eta berriz ere itzuli behar dugu animalien gaineko diskurtsora.

Armadiloarengatik diozu?

Bai, nire kontzientziaren pertsonifikazioa delako. Egunean zehar denbora asko pasatzen dut bakarrik nire pentsamenduez inguratuta, eta armadiloa

animalia egokia iruditzen zait kontzientziaren zatirik barnerakoiena islatzeko. Armadiloa bere barruan ixten den animalia da, alegia, oso soziopatikoa. Horregatik, nire lehen komikian, *La Profecía dell'Armadillo*-n, kontzientziaren txokorik ezkutuenera bidaiatu nuen.

***Hondamuinean* komikira bueltatuz, euskarara itzuli den zure lehen liburua da. Are gehiago, gaztelanira baino lehenago itzuli da. Aurretik publikatu al zaituzte beste hizkuntza gutxitu batean?**

Beno, kurduak saiatu izan dira *Kobane Calling* liburua kurduerara itzultzen, baina arazo etikoak dituzte biraoekin eta ez dute inoiz itzultzen amaitu. Antza, hitz itsusi gehiegi ditu istorioak (barreak). Edonola ere, meritu galanta dute itzultzaileek, nire komikietan italiera baino erromatar dialektoa baita nagusi.

Baina zure kontakizunak oso unibertsalak dira. Era humanoan azaltzen dituzu gure belaunaldiaren beldurrak eta etsipenak. Etorkizuna gure zain zegoela esan ziguten. Zer gertatu zaigu?

Nire komikietan 1980ko lehen bostur-



VANESSA NASCIMBENE / BAO PUBLISHING

EGILEA, 'HONDAMUINEAN' ESKUETAN DAUKALA.

tekoan jaio ginenei erreferentzia egiten dieten aipu asko daude. Baina zaila da belaunaldi oso baten izenean mintzatzea. Oro har, nire mikrokosmosa da abiapuntua eta oso galduta sumatzen dut. Inguruan formazio handia duten lagunak ditut, ni baino askoz prestatuagoak daudenak. Baina zailtasunak dituzte haien munduan toki bat aurkitzeko. Zerbitzariak dira edo haurrak zaintzen dituzte. Alokairuan bizitzeko edo benetan independizatzeko kontratu motzegiak egiten dizkiete. Amesten uzten ez dien egunerokotasun itogarrian bizi dira. Niretzat oso gogorra da hori, izan ere, selektibitatea egin ostean ez nuen ikasketekin jarraitu eta halarik ere, nire bidea egitea lortu dut. Batzuetan kazetariak galdera konplikatuek egiten dizkirate eta supermerkatu batean kutxazain lanetan ari den lagunari deitzen diot zer erantzun behar dudan galdetzeko. Errealitatea oso krudela da.

Eta atsekabe hori biziki nabaritzen da Hondamuienean-en...

Nik galtzaileen liburua deitzen diot. Onartu behar dut ikuspuntu profesionaletik oso ongi joan zaizkidala gauzak, baina alde humanoari begiratzuz gero,

porrotaren txapelduna naiz. Eta liburu-ko protagonistei erreparatzen badiezu, denak dira ileetatik tiratzeko modukoak. Halere, kontuan izan behar da nire umore-sena nahiko krepuskularra dela.

“INGURUAN FORMAZIO HANDIA DUTEN LAGUNAK DITUT, NI BAINO ASKOZ PRESTATUAGOAK DAUDENAK. BAINA ZAILTASUNAK DITUZTE HAIEN MUNDUAN TOKI BAT AURKITZEKO”

Liburuan, gainera, era argigarrian azaltzen da Genovako 2001eko globalizazioaren aurkako protestek belau-naldi oso batentzat ekarri zuten apurketa. Trauma hori gaindituta dago? Genovako G8-aren aurkako manifestazioek zeharo hipotekatuta utzi zituzten hurrengo hamar urtetan Italiako plaze-

tan egin ziren protestak. Gizartea polarizatu egin zen indarkeriaren aldekoen eta kontrakoaren artean. Beldurra nagusitu zen. Halere, egun bizi dugun krisia ekonomiaz harago doa; gizarte zibila itzali egin da. Duela urte batzuk oso arrunta zen arima desberdinetako herritarrez osaturiko asanblada handiak egitea. Mundu hori desagertu egin da eta jendea ez da gehiago antolatzen.

Egun, ordea, badirudi eskuin muturrak kapitalizatu egin dituela globalizazioaren eta kapitalismoaren aurkako borroka...

Bai, baina huts egiten ari gara haien pisua neurtzerako orduan. Egia da Italian hazi egin direla parlamenturik kanpo dauden mugimendu faxistak, baina oraindik ez dute botoen %1a gainditzen. Orduan, zergatik gonbidatzen dituzte telebista saioetara solaskide politikoak balira bezala? Horrek fenomenoaren puztu besterik ez du egiten. Bestalde, Matteo Salvini Barne ministroari dago-kionez, hedabideek autokritika ari-keta egin beharko lukete. Izan ere, azken bost urtetan egunero agertu da telebista saioetan. Egunero bazkalorduan eta afa-lorduan. Horrek muntstroa sortu du. ●

Azpikontratazioa kulturaren kaltean

Azpikontratazioak kulturaren arloko profesionalen lan-baldintzei ere eragiten die, nahiz eta beste sektore batzuekin konparatuta, ez den gaiaz hainbeste hitz egiten. Problema ikusgarriago bihurtu dute azken hilabeteetako bi gertakariak: euskal bikoizleen plantoak eta Tabakalerako Ubik liburutegiko langileen grebak.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA @boligorria

“Lan baldintza duinak Tabakalerako langile guztientzat” idatzita zeukan pankartarekin, elkarretaratzea egin zuten joan den asteazkenean Donostiako kultura garaikideko nazioarteko guneko hainbat langilek. Bi hilabete pasa dira zentro horretako Ubik sorkuntza-liburutegiko bi-tartekariak greban hasi zirenetik, beste zenbait arazoren artean salatuz soldata baxuak dauzkatela eta kontziliaziorako aukerarik ematen ez duten ordutegiak.

Ez dirudi soluzioa hurbil dagoenik eta bitartean, Tabakaleraren zerbitzu izarretako bat itxita dago, kontratua eskuratu zuen Sedena enpresak planteamendu “iraingarriak” jarri baititu momentuz negoziazio mahaian grebalarien ustez –soldata igoera baten truke datozen lau urteetan mobilizaziorik ez egiteko konpromisoa eskatu zien–. Lan-gatazka hau agerian uzten ari da Ubiketik harago doan problema, zentro bereko beste zenbait zerbitzuek ere azpikontratazio bidez funtzionatzen baitute. Liburutegitik landa ere bada prekarietaterik.

Historia ezaguna egingo zaie azken asteetan zeresana eman duten beste langile kultural batzuei: pelikulen euskarazko bikoizketak egiten dituzten aktoreek urtarilaren amaieran iragarri zuten ez dutela film gehiago doblatuko Zinema Euskaraz programaren barruan. Joan den irailean Mixer enpresak irabazi zuen bikoizketarako ETBren lehiaketa publikoa, “prezio merkeena eskainiz” Bieuse Bikoiztaile Euskaldunen Elkar-teak azaldu duenez. Gero soldata jaitsi zuten bikoiztaileei –berriz jaitsi, izan ere,



DANI BLANCO

bost urtean %35 murriztu die–. Eta profesionalen gehiengoak beherapenari uko eginez, lanuztea abiatu zuen.

Kontua ez da berria, sektore askotan gertatu denaren errepika baizik: instituzioek enpresa pribatuaren esku uzten dituzte zerbitzu publikoak; enpresok ukondoka aritzen dira adjudikazioa lortzeko, prezioak lurretik botatzen; langileek pagatzen dute lehenbizi, euren kondizioak behehituz; eta herritarrek gero, zergekin ordaindu dituzten zerbitzuen kalitatea jaisten delako edo, sortzen diren lan-gatazkek medio, eten egiten direlako.

Diferentzia bat egon da duela ez asko-ra arte, ordea, beste alorretako langileen

eta sektore kulturaletan zebiltzanen artean: hauen prekarietatea erdi-ezkutuan egon dela, ez zela publikoki adierazten, akaso beraien ogibideak ez duelako bat egiten normalean langile klasekotzat jotzen dugun horrekin. Ubikeko eta bikoizketako profesionalen aldarriek konfirmatzen dute muga hori desplazatzen ari dela. Eta azken urteetan ugaritzen ari diren zerbitzu hauetako langileen borroka kontuan izanda –Bilboko Guggenheim eta Arte Ederretako musetako grebak, Azkuna Zentrokoa, Euskaldunakoa, Irungo CBA kulturguneko langileek lortutako hobekuntzak...–, beste batzuk ere sor daitezke, indarrean den eredua aldatzen ez bada. ●

Afrikar emakume gerrariak Oscar sarietan



NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA
@irazustabarrena

Dahomey erresuma (Egungo Benin), 1724. Emakumez osatutako ejertzitoak Alladaren aurkako gerran parte hartu zuen. Handik hiru urtera Whydah erresumako Savi hiriburuaren konkistan ere jardun zuten *mino* ("gure amak" fon hizkuntzan) izeneko gerrariak. Handik aurrera, emakumeek batailoiraunkorra osatu zuten eta 6.000 kidera iritsi zen.

Dahomey erresumako yorubak inguruko herriekin gerran jardun zuten luzaroan eta esklaboen salerosketak herrialdeari ekarritako oparotasun ekonomikoari eusteko, gainbehera demografikoari aurre egin behar zioten. A. E. Wilmot merkataria ingelesak, esaterako, Abomey hiriburu kaleetan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desproporzioa oso nabarmena zela jaso zuen. Horrenbestez, Agadja erregeak (1708-1732) bere aita Houegbadjak sortutako elefante ehiztari emakumeen taldea (*gbeto*) guardia pertsonal gisa erabiltzen hasi zen lehenik, eta borrokarako trebatu eta erabiliko zituen gero.

Gerrariak nerabezaroan errekrutatzen zituzten eta trebatze prozesu gogorra izaten zuten: lantzak, aiztoak, mazoak, ezpatak eta suzko arma europar batzuk erabiltzen ikasten zuten, baita gorputzez gorputzeko borrokan ere. Eta borroka lanetan ere gaztetatik jarduten zuten, heriotzara ohitzeko eta errukia uxatzeko. Ordainetan, pribilegio asko zituzten: errege jauregian bizi ziren eta nahi adi-



TROPENMUSEUM

BIZIRIK GERATZEN ZIREN MINO APURRAK PARISEN, 1897AN, EUROPARRENTZAT IKUSKIZUN BIHURTUTA.

na alkohol, tabako eta esklabo omen zituzten eskura, R. Burton esploratzaileak 1860an idatzi zuenez.

Minoen kopurua eta ospea handituz joan zen aldameneko herriekin borrokan, baina kolonizatzaile europarren aurka hasi zirenean, zehazki frantziarren aurka, teknologiak gaingitu zituen. Zenbait militar frantziarren arabera, suzko arma gutxi eta zaharkituak zituzten, eta ez zituzten zuzen erabiltzen. Minoen adorea eta gorputzez gorputzeko borrokan zuten nagusitasuna nabarmendu zuten arerioek, baina hori ez zen nahikoa izan. 1892an, frantziarren aurkako gudu batera 434 mino bidali zituzten; soilik 17 ateratu ziren

bizirik. Mendea amaitu baino lehen, Afrikako ia azkeneko erresuma independentea Frantziako kolonia bihurtu zen.

Datorren astelehenean banatuko diren Oscar sarietan, *Black Panther* filmak sei nominazio ditu, eta lehen aldia da superheroien pelikula bat film onenaren saria jasotzeko hautagai dela. Fikziozko Wakanda erresumako Dora Milaje emakumezko gerrariak dira, besteak beste, filmeko protagonistak. Fantasiak eta akzio sinesgaitzez betetako filmak, hortaz, badu iturri erreala historikoa: Dahomeyko minoetan oinarrituta daude Ayo, Okoye, Xoliswa eta filmeko gainerako emakume gerrariak. ●

Esklaboen Biblia mehea

Euskarazko Wikipediak berriki jakinarazi du Biblia osoa wikiteka.eus-en libre jarriko dutela, Dionisio Amundarain itzultzailearen baimenaz. Baina "Biblia" eta "libre" hitzak ez dira beti elkarrekin joan; Washingtongo (AEB) Bibliaren Museoak *Esklaboen Biblia* ikusgai eta hizpide duen erakusketa antolatu du. XIX. mendean misiolari britainiarrek moldatutako bertsioa da

—soilik hiru ale geratzen dira egun—. Karibeko esklaboei irakurtzen irakastea eta kristautasuna zabaltzea zuen helburu, baina ahal zela esklaboak aztoratu gabe. Askatasun grina piztu zezakeen edozein pasarte ezabatu zuten eta, azkenean, liburuak mehea geratu zitzaizkien. Biblia katolikoak 73 liburu ditu, eta ortodoxoak, 78; *Esklaboen Biblia* 14 besterik ez. ●



MUSEUM OF THE BIBLE



LIBURUA

Zoriontasuna, literatura eta emakumeak



DANI BLANCO

LITERATURA ETA HARRIKOA INMA ERREA

INMA ERREA CLEIX IDAZLEA ETA
ITZULTZAILEA (IRUÑEA, 1960)

PAMIELA, 2003

ARITZ GALARRAGA

@aritzgalarraga

Brigita ez da Inma Errea, baina bada itzultzaile, emazte eta ama, liburuak zorion iturritzat dituen fikziozko pertsonaia. Orriotan argitu nahi duen afera, literatura eta emakumeen esperientziak lotzen dituzten hari fin eta ia ikusezin horiek zertan dautzan, nolakoak diren, norantz doazen. Saiakera moduko bat egiten hasi da, hortaz, *work in progress*, zeinak autore jakin batzuen bitartez egiten duen aurrera: Virginia Wolf, Ángeles Mastretta, Danielle Steel, are Espainiako telebista kate bateko emakume aurkezle distiratsu plagiatzailea.


Eta azierto bat da, esango nuke, batetik, protagonista fikzionatu izana, edo gutxienez tarte pixka bat utzi izana idazlearen eta testuaren artean; hartara, liburuiko pasarterik zalantzaragarrak ere

–“iruzurra iruditzen baitzaio ama, edo gutxienez, emakume izan gabe, emakume batek ama gisa izan ditzakeen sentimenduak azaldu nahi izatea”– egiantzeko suerta litezke, autorearen aurkako bazka izan beharrean. Eta azierto bat da, bestetik, aurretik literatura eta emakumeen esperientziak lotu izan dituzten testuen gainean ibiltzen dugulako bidea.

Total, erakargarri egin zaidala Brigita: zalantza egiten du, kontraesanetan erortzen da, ez dakiela dio; gauza arraroa gaur egunean, eta benetan eskergarria. Kontu zorionez desfasatuak irakurriko dizkiogu –“badaki emakume askok muzin egiten diola informatikari”– eta argitu, segur aski, ezer argitu badaiteke behintzat, ez du gauza handirik argitzen. Eztabaidagaiak mahaigaineratzen ditu,

ordea. Eta ez da gutxi. “Batuetan asmatzen zuela iruditzen zitzaion, bestetan, berriz, oker zebilela”. Agian gaur egunetik gauza berri handirik ez dakar –nahiz inoiz ez dagoen soberan kontzeptu oinarritzkoenak ere berriz gogoratzea–, baina, zalantzarik ez, 2003koa izanik, aitzindari gisa badu bere balioa. Orain, eta zorionez, pentsamenduaz eta emakumez ari diren bildumak (Lisipe, Eskafandra) gehixeago ugaritu diren honetan.

“Senak zorionaren kontu horrek literaturarekin, baita emakumezkoen literaturarekin ere, zerikusia duela agintzen dio”. Zoriona, literatura eta emakumeak, beraz, iruzkin honen goiburua ere –iragarki matxirulo baten leloa dirudien arren–. Errearen saiakerak harrapatzen dituen gakoak. ●



KONTZERTUA

Beltxargen iraultza



Dance Factory Johannesburg taldea, Arriaga Antzokian.



SWAN LAKE BELTXARGEN AINTZIRA DANCE FACTORY JOHANNESBURG TALDEA

ZUZENDARI ETA KOREOGRAFOA:
DADA MASILO

Bilboko Arriaga Antzokia / Otsailaren 2a.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Dada Masilo dantzariaren ikuskitzen honetan ezer ez da aurretik espero dena. Ez da ikusi nahi genuena baina txarragoa, ezta hobe ere. Egia esan, konplikatu da esplikatzea. Dantza klasiko bat –twist batekin, hori bai– disfrutatzea gindoazen, baina istorio sinple eta labur-laburra (ordubete baina gutxiagokoa) ikusi genuen, zein generorik ez zegoen, *Beltxargen aintzira* klasikoaren argumentua erabat galduta zegoen, eta Txaiikovskiren musika oso tarteka entzun genuen. Hau guztia egia da. Baina ikuskizun fresko eta benetan polita eta alaia gozatu genuen.

Hegoafrikan, Dada Masilo dantza-ri koreografo gazte ezagunenetakoa bat da, ausarta, distiratsua. Klasikoen artean klasikoena hartu du, beretu egin

ditu honen gaiak, Txaiikovski-ren musika –beste batzuekin nahastuta, oso nahastuta–, tutuak eta puntako oinetakoak, eta, hori guztiarekin sudur puntan jarri zaiona egin du, begirune handiz, hori bai. Esan bezala, Txaiikovski maisuaren gaiak hartu ditu, baita ere Saint-Saëns-en pasarteak, edo Arvo Part bezalako musikari garaikideen partiturak. Koktel zoragarria.

Mutilak eta neskak tutua jantzita, amodio homosexual baten istorioa kontatzen du, gizartearen tolerantziarik eza, bakardade sentimendua... baina, hori bai, umorez eta dantza sutzaile batez. *Beltxargen aintzira* bertsio ero hau Europa osoan, Montrealean, Ottawan eta New Yorken antzeztu da oso kritika onak lortuz. Izan ere, Lyongo biena-

lean izugarritzko arrakasta izan zuen, batez ere klasikoaren ikuspuntu berri eta apurtzailea emateagatik.

Koreografiari buruz, gauza onak besterik ezin dira esan. Birtuosismoz nahasten ditu Masilok puntako dantza eta afrikar eragin sendoak dituen dantza garaikidea, oso estilizatua eta erritmikoa. Eta nahasketa horren ondorioz ballet bizi-bizia ateratzen da. Ez nuke esango teknikaren aldetik perfektzioa lortzen dutela, ez, baina perfektziotik haratago joaten dira Johannesburgokoak. Dantzaren pasioa da haien helburua eta zalantzarik gabe lortu zuten pasio eta emozioa publikoarengana transmititzen. Di-da batean pasatu zen berrogei eta hamar minutu iraun zuen ikuskizun zirraragarri hau. Haize freskoa! ●



Zorionak, Seaska!

TESTUA | GORKA PEÑAGARIKANO @gorkap34

ARGAZKIAK | IBAI ARRIETA

Elkarlanetik sortu eta bizi da Seaska, Ipar Euskal Herriko ikastolen elkar-tea. Ospakizunetan da: 50 urte bete ditu aurtan. Larunbateko ekitaldiak Euskal Herriko hainbat txokotako jendea erakarri zuen Miarritzera. Ia 5.000 lagun inguru bildu ginen Iraty Aretoan, eta bigarren zorionak Seaskari, antolakuntza paregabea izan zelako.

Ipar Euskal Herriko taldeei eman zieten ahotsa: han izan ziren Diabolo Kiwi, Willis Drummond eta Xiberoots, baita Berri Txarrak ere. Talde nafarraren azken bigarren kontzertua izan zen *Xilaban* –apirilean Hazparden izango dira-. Kontzertuen artean, jatekoaren eta edatekoaren bila zihoan pertsona uholdearen artean izan zen Txakatuk txaranga; gazte hauek arduratu ziren pabilioia girotzeaz.

Rock, funk, reggae eta beste hainbat estilo nahasi ziren Miarritzen. Dia-

bolo Kiwi izan zen jotzen lehena, eta ingurukooi ezezagunak zitzaizkigun arren, ezin uka gozatu genuenik. Teklatuaz lagundutako funk doinu erakargarriek lehen lerroetako hutsuneak betetzeko eta gerria mugitzen hasteko balio izan zuten. Musika estiloa erabat aldatuz, eta beste ordubete pasatxo, oholtza gainean aritzen hurrengo Willis Drummond talde baionarra izan zen. Bost laguneko taldea izandakoa hirukote gisa beti bezain fin aritu zen; gutxik dute haiek bezainbeste indar zuzenekoetan. Norberak balora deza-la Berri Txarrak aurretik jotzea ona ala txarra den: gero eta jende gehiago zegoen lehen lerroetan, eta ez espresuki gehiengoak baionarren kantuak zekizkielako. Nabari zen jendeak burua ondorengoan zuela. Zortzi kilometroko banatzen dituzte Baiona eta Miarritze,

baina Berri Txarrak edonon izango da jendearen gertuko, eta are gehiago azken bira honetan.

Ostiralean eman zion hasiera Berri Txarrakek *Ikusi Arte* birari, Gernikan. Apirilera bitarteko ia kontzertu guztietako sarrerak agortuta daude jada, eta Miarritzen ikusi zen zergatik: harri-garria zen zenbatek zeraman haien kamiseta. Musika gogorretik gutxi izan zuen talde nafarrak, azken diskoetako joera melodikoko kantuak jo baitzituen batez ere. Xiberootsen txanda heldu zenerako, jende asko alde egina zen aretotik. Gelditu zirenek, baina, aukera izan zuten zuberotarrek reggaera eramandako kanta ezagunen bertsioekin dantzatzeko. Ipar Euskal Herrian euskarari hauspoa ematen dion Seaskak bizirik badirau, badago zer ospatua. Beste 50 ere izan daitezela! ●



Gurutzegrama

GAIA: EMAKUMEZKO AKTORE GIPUZKOARRAK



EZKER-ESKUIN:


1. Balio ez duena. Txigortuta dagoena. Duela gutxi. **2.** Hirurogeinaka zenbatzen edo zatitzen duena. **Ainhua...**, donostiar honek Goenkalen Leonorren papera egin zuen. Gaur egun, «Go!azen» teleaileko aktoreen zuzendari dabil, besteak beste. **3.** Danimarkar. Ileak. **4.** Erabat. Haur. Buruko jantzia. **5.** Itsasontziko langile. **6.** Ño, tori! Diru-laguntza. **7.** Dantza argentinarra. Drainatzeko tutuak. **8.** Iraia..., zarauztarra, aktore berri onenaren Goya sarirako izendatu zuten 2016an, bere debutean «Amama» filmean egindako lanagatik. Elena..., Zumaiako aktorea, Euskal Herrian gehienbat telebistako teleailei esker ezaguna bada ere («Bi eta bat», «Jaun ta Jabe» eta «Martin»), antzerkian eta zineman egindako lanak ere ugariak dira. **9.** Konoaren itxura duena. Aipamen. Ezin mugi daitekeena. **10.** Jardun, eragon. Distira. Basamortuko berdegunea. Argala, estua.

GOITIK BEHERA

1. Aleak haustu. Talde handitan. **2.** Nori atzizkia. Sail, eremu. **3.** Kontsonante bikoitza. Haur txiki. **4.** Europioa. Gauza, kapaz. **5.** Oinarrizko edari. Zapata. **6.** Uzki bidezko sexu-harremana. Osmioa. **7.** Gaudé. **8.** Gizonezkoetan, ahotsik altuena. **9.** Xiita. **10.** Galdera, galde. **11.** Beasaindar hau Euskal Herrian 2003an egin zen oso ezagun ETB2ko «Vaya Semanita» saioarekin. Gero, Estatuan egin zen ezagun, «Los Hombres de Paco» teleailean, «Allí Abajo» teleailean dabil gaur egun. **12.** Zakur. Neke, estualdi. **13.** Adore emateko hitza. **14.** Mikroorganismo txiki. **15.** Nire. **16.** Burdinazko lokarria. **17.** Bizkaiko herria. Ugaztun haragijale. **18.** Dakota. Bermudako domeinua. **19.** Ehuna, oihala. Autonomi Elkarte. **20.** Irendu dena. Rhesus faktorea. **21.** Abaraska. Bigarren musika nota. **22.** Akiarria.

Betegrama


TAULAN HUTSIK AGERTZEN DIREN LAUKIAK OSATU ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ GUZTIAK IRAKURRI AHAL IZATEKO.




5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Maiztu.
2. Mingots, min.
3. Aldarte.
4. Eskari edo salmenta handiak.
5. Momentuko.



EBAZPENAK



5XS:
1. USUTU
2. SAMIN
3. UMORE
4. TIRAK
5. UNEKO

Nekagarria.

8. Elias, Irureta, 9. Koniko, Aipua, Elbarr, 10. Ari, Islara, Txanoa, 5. Marinel, 6. No, Beka, 7. Tangoa, Drainak, Hirurogeitar, Aierbe, 3. Danlar, Uleak, 4. Oro, Ume, 4. Euz, Gal, 5. Ur, Oski, 6. Sodoma, Os, 7. Gara, 8. Tenor, 9. XII, 10. Itaur, 11. Garmendia, 12. Or, Elorrio, 13. Aupa, 14. Birus, 15. Ene, 16. Katea, 17. Ea, Txakal, 18. Sux, Bm, 19. Tela, Ae, 20. Iren, Rh, 21. Abao, Re, 22. Oasia, Mehea.

Pablo Azkona

NAFARROAKO UDAL ETA
KONTZEJUEEN FEDERAZIOKO
PRESIDENTEA



UDALA, POLITIKARAKO GUNE

1980an jaio nintzen Lodosan. 2007an zinegotzi hautatu ninduten, LOIUren eskutik, herritar ugariren artean sortu genuen hautagaitza bat. 2011tik naiz Lodosako alkate, 2015tik gehiengo osoz. Gogoan dut aurreko legegaldian bilera bat izan zela Lizarraldean, PSN-k kontzejuak ezabatzea proposatu zuelako, eta ikaragarritzko zalaparta sortu zen. Hor hasi nintzen kontzejuen balioaz kontzientzia hartzen, askok parte hartze politikorako modu gisara ulertzen zituztela ikusita. Lizarraldeko hainbat alkate biltzen hasi ginen, eta Nafarroako gainerakoekin kontaktatzen, Berriozarko taldea deitu izan dena sortzeko. 2015ean, udal maparen erreforma abiatzeko gehiengo bat egon zitekeela ikusi genuen, baina federazioaren presidentetza behar genuen horretarako. Orduan aurkeztu genuen nire hautagaitza. Eta hemen nago.

“Kudeaketarik onena ahalik eta gertuen egiten dena da”

272 udalerrik eta 378 kontzejuk osatzen dute Nafarroako tokiko administrazioa. Orain, udal maparen erreforma adostuta, hamabi eskualdetan bilduko dira, bestela eskaini ezingo lituzketen zerbitzuak eskaini asmoz. Legealdiko egitasmo funtsezkoenetakotzat jo dute parlamentuan onartu duten alderdiek, baina oinarritik dator bidea, udal eta kontzejuetatik orain hiru urte abiatutako prozesutik. Pablo Azkona da horiek denak biltzen dituen NUKFko presidentea. Pozik mintzo da, nahiz eta dioenez, erronka ez den bukatu.

TESTUA | **ANDER PEREZ**
ARGAZKIAK | **JOSU SANTESTEBAN**

Poza hartuko zenuen behin legea onartuta.

Urteak dira administrazioaren modernizazioa eskatzen ari ginela, eta horri, administrazioa berrantolatuz erantzuten zaio. Hori, berez, bada garrantzitsua. Bestalde, lege hau parte-hartze prozesu batean oinarrituta iritsi da azken helmugara, parlamentura, eta horrek bultzada argia ematen dio. Adostasun nabarmena egon da: parte hartzaileen %61ak adostu du eskualdea izatea figura berria. Legeari parlamentuaren galbahea pasatzeko falta zitzaion. Hala ere, hemen ez da ezer bukatzen. Kontrakoa: lanean hasteko marko berri bat dugu.

Lanean, zertan?

Behin legea argitaratuta, hamabi eskualde eratu beharko dira, bakoitza bere foru lege propioarekin. Gainera, erreforman arlokako hemezortzi lege moldatzeaz hitz egiten da. Beraz, 30 legeri heltzeaz ari gara.

NUKF-en abiatu zen legearekin itxi den prozesua. Nola bizi duzu?

Ni gai honengatik naiz federazioko presidente. 2015ean hautagaitza aurkeztu genuenean, tokiko administrazioaren erreforma oinarritik abiatzea zen gure erronka. Babesa jaso genuen eta hitza bete dugu. Prozesu konplexua zen, bai parte hartu beharreko jende kopuruagatik, baita gaia-aren konplexutasunagatik ere. Bidean gauzak ikasten joan gara, baita iritziz aldatzen ere, eta hori aberasgarria da. Erabat deszentralizatutako prozesua izan da, eta oso aberasgarria izan da herrien errealitatea ezagutzea.

Asko hitz egiten da erreforma honen garrantziaz, baina uste duzu herritarrak horretaz jabetzen direla?

Oso garrantzitsua izan arren, gaia ez da inoiz egon herritarrei zuzendutako diskurtsoan, hori da gure porrotik handiena. Uste dut huts egin dugula, ez dugulako eztabaidaren erdigunean jarri herritarrari zer ekarriko dion.



“ETXEAN TXORROTA IREKI ETA URA ATERATZEKO MILIOIAK INBERTITU BEHAR DIRA. ENTITATE BATZUK OSO TXIKIAK DIRA, BAINA ZERBITZU HORIEK ESKAINI BEHAR DITUZTE, EXISTITZEARI UTZI NAHI EZ BADIOTE”

Baina hemen adibide bat: 600.000 biztanle gara Nafarroan, komunitate txikia gara, baina oso atomizatua. Nahi badugu Nafarroako idiosinkrasia hau mantendu, populazio gune asko eta sakabanatuekin, eta landa eremuan bizi den jendearekin, tokiko administrazioak tresnak bermatu behar ditu, jendeak han bizitzen jarraitu ahal izan dezan. Tokiko entitateak ez dira gai hainbat gauzari aurre egiteko.

Adibidez?

Tokiko entitate bat elektronikoki zerbitzu bat eskaintzeko gai ez izateak erakusten du hainbat udal bildu behar garela, erantzun bateratuak emateko. Mugikorrarekin funtzionatzera ohitu gara, gure banku edo dendarekin; administrazioarekin ere hala beharko luke. Nafarroan 384 kontzeju ditugu, eta udal pila bat, Madrilgo edo Iruñeko Udalek bete behar dituzten lege berak bete behar dituztenak. Lan hori borondatezko jendeak hartzen du bere gain, lagunduko dieten egitura juridikorik gabe. Hainbat zerbitzuek, eraginkor izateko, gutxieneko masa kritikoa behar dute, eta horretarako ezinbestekoa da toki entitateak elkartzea.

Etxean txorrotak ireki eta ura ateratzeko milioiak inbertitu behar dira. Entitate batzuek oso txikiak dira, baina zerbitzu horiek eskaini behar dituzte, existitzeari utzi nahi ez badiote.

Pentsa liteke, hainbat udalerri eta kontzeju eskualde batean bilduta, autonomia gal dezaketela.

Eztabaida hori funtsezkoa da, oreka bilatu behar baitugu. Guk udalerrien autonomia bermatu dadin egin dugu lan. Gainera, tokiko entitate bakoitzak erabakiko du zer utzi eskualdearen esku eta zer ez. Udalek honezkero mankomunitateen bitartez eskaintzen dutena da legeak eskualdeari esleitzen diona. Eskualdeak, azken finean, kontzeju eta udalerrien zerbitzurako tresnak dira, haiek bestela eskaini ezin dituzten zerbitzuak eskaintzeko.

Balio dezakete landa eremuko despopulazioari aurre egiteko?

Paperean jasotzea erraza da, baina bai, logikoki, jendea bere lurraldean gertatu dadila da nafar administrazioaren erronka nagusietako bat. Horretarako,

ezinbestekoa da herritarrek zerbitzuak bizi diren tokian jasotzea. Despopulazioa mundu mailako fenomeno da ere egia da, baina uste dut Nafarroan nahiko erraza litzakeela aurre egitea, nahiz eta horretarako hainbat gairi heldu behar zaien: errepide sarea, banda zabalaren ezarpena...

Hiriak handitzen doazen honetan, zer pisu geratzen zaio tokiko administrazioari?

Legareen arabera, udalerria izango da oinarritzko figura. Horrek esan nahi du udalerria dela erdigunea, eta gainerako entitateak harentzako tresnak direla. Udalak zerbitzuak beren kabuz eskaini ezin dituztenean bakarrik baliatuko dira eskualdeez. Ni munizipalismoaren aldekoa naiz: kudeaketarik onena ahalik eta gertuen egiten dena da.

Zeintzuk dira hurrengo erronkak?

Uste dut udalerria administrazio osoaren ardatza izan dadin apustu egiten jarraitu behar dugula. Horretarako ezinbestekoak dira egiturak eta finantziak. Hor dago erronka. ●



Egiazko ezker iraultzailea dela frogatzeko, bitan banatu da jada Gazte Koordinadora Sozialista



Igandean aurkeztu dute ~~lako-gaitz~~ jatorri eta ideologia anitzeko gazte askok Gazte Koordinadora Sozialista. Munduko langileriak eta erakunde sozialista guztiek erakutsitako bideari jarraiki, astelehen goizerako bitan banatzea erabaki dute: Koordinadora Sozialista Gaztea eta Gazte Sozialisten Koordinadora. Biek akabatu nahi dute han burgesaren dominazioa, eta biek erabiltzen dituzte "egikaritu" eta "subsumitu" aditzak

nahieran, baina ez datoz bat "ospakizun eredu politiko berriarekin". Batzuen ustez txosnak dira instituzio proletario bakarra eta besteek aldiz hala ulertzen dute baina laugarren Jagermeisterretik aurrera.

Eztabaida honen erdian Gedar langile kazetak komunikatua atera du proletarioen zalantza nagusia argitzeko: 'gedar' ez da Leninen lehengusu bat, bizkaierazko hitz bat baizik. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Eraupena basatia guztizko garbia

EST ALHONDIGA S.A	
48011 BILBO/BILBAO	
Nº Impto. ESA95183505	
KUTXA 1	12/01/18 20:23
Factura 086988	
TIKETA/TICKET	
ALHON - Nº 007168	
12/01/18 17:52	
12/01/18 20:23	
Eraupena/Duración 0d2h32'	
(IVA/BE)	€4,40
Eraupena Basatia/Total 8.	
€4,40	
Ordainketa/Pago	
Kontatua/Contado	€4,4
Guztizko garbia/Total net	
€3,64	
IVA 21%	€0,76

Irudia: Arkaitz Zarraga, Bilboko Alhondigan

Xuxen pasata,
hobetogutzizko garbia



Santiago Abascalek bere burua Espainiako presidente izendatuko du 23F-an

Santiago Abascalek dena prest dauka otsailaren 23an manifestazio baten amaieran bere burua Espainiako presidente izendatzeko. "Tejerok eta bere pistolak demokraziari egin zioten ekarpena oroitu nahi dugu espainiar zentristok larunbat honetan", azaldu du Vox-eko iturri batek, hain zuzen egunean bitan Pablo Casado eta Albert Rivera paseatzera ate-

ratzeaz arduratzen denak. Hitz horiek entzutean zaunka egin du Casadok eta Riverak berriz, begi bat itxi du, jolastu nahi zuen Pintto txakurrak bezala. Beranduegiren Washingtongo korrespontsalak jakin ahal izan duenez, Donald Trumpek dena prest dauka presidente berria airtortzeko. Iñaki Anasagastik merengea dantzatzen segitzen du. ●

OINA: ANIMALIA IBERIAR BAT, HARTZ BATEKIN.




Sartu ARGIAko **AZOKA**n eta ezaqutu eskura duzun guztia




Ikus-entzunezkoak



Mahai-jolasak




Laminak eta mapak



Gorputza



Eguzki lorearekin egindakoak



Bitxiak




Argitalpenak




Elikagaiak




Eskulangintza



Jantziak



Jostailuak



Besteak

azoka

<https://azoka.argia.eus/>

LIBURUA
SALGAI!
14€

BERDEA DA MORE BERRIA

**BIZKAIKO EGOITZETAKO
GREBALARIEN TESTIGANTZAK**

Onintza Irureta Azkune



MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA



ARGIA